

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1992ko Urtarrilak 17. 134. zenbakia


Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



JON SARASUA
Bertsolaritza
astindu duen
kazetaria


Merkealdia

Erosketak egiteko amua



A R R A S A T E
K I R O L A K

Kantzeziño, 8 ARRASATE. Tfnoa: 79 46 12



orra, horra, gure Txoronpia eta Txoronpio. Biak ezauketan ditugu herrian... biak mendian ibiltzen dira eta egun batez, dotore dotore jantzi eta herriko kale eta auzoetara hurreratu dira. Batak zakua eta besteak otzara; bietan alaitasuna eta zoriona jaso eta Olentzerori emateko. Guzien gaintetik ageri dira, hankapalu luze eta finekin. Txapela, otarra, alkandora, soinekoa... eta herritarrok eskean. Txoronpia eta Txoronpio



Karmelo U.

ikusi ez ebenak hementxe dauko aukera, zelako fin eta dotoreak diren ikusteko. Oraingoz agur esan diegu.

Datorren urtean be etorriko dira eta ikusiko ditugu.



Patterncam

**EREDUAK,
MAKETAK ETA
KONTROL-TRESNERIA
CAD-CAM
BIDEZ**

Musakola auzoa, 26
Kataide Industrialdea. 15, pabilioia. Tfnoa: 77 08 30. Faxa: 77 06 06
ARRASATE

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Azoka kalea, 1 / 20.500 ARRASATE.
Tfnoa: 77 05 65 Faxa: 77 09 40

Laguntzailea:

Arrasateko Udala

Zuzendaria:

Arantzazu Loidi

Erredakzioa:

Beñardo Kortabarria, Agurtzane Loidi

Publizitatea eta harpidetak:

Armaia Sanz
Tfnoa: 77 08 15

Maketazioa:

Goio Arana

Erredakzio-kontseilua:

Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zاراia,
Asier Aranguren, J. Velez de Mendizabal.

Kolaboratzaileak:

Mikel Irizar, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Joxe Ramon Elortza, Blanka Jauregi, Joseba Vallés, Karmelo Uribarren, Hankamotz, Jon Garai, Amaia Jauregi-Arraburu, Atalaitaioan, ASA, Xabin Arrieta, Koldo Rodriguez, Jon Andueza, Andoni Urzelai.

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 5.800 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek Eusko Jauriaritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Abiaduraren erokeria

Japoniako lehen ministroaren altzoan Bush lehendakaria inklito eta ikutezinak bere barruki liskartsu eta usaintsuak hustutzen zituen ia une berebean, gure etxeetako teleaparailuetan dasta genitzakeen erorketa ospetsuaren ondorioak. Ziurrenik, batek baino gehiagok salto egingo zuen bere jarlekutik, konorterik gabe jausitako presidenterari esku bat luzatzeko asmo onez. Askori, aldiz, Kennedy lehendakariaren hilketa etorriko zitzaion gogora, jaio berria zen telebistak eskaini ahal izan zuen gertaera irratiz heldu zelako oroituko zuelarik.

Abraham Lincoln heriotzeko albistea hamairu egunetako atzerapenaz iritsi zen Europara. Amerikar kontinenteko Colonen lehorreraketa hiru hilabete beranduago ezagutu zuen Espainiako erreginak. Gure arbasoen baserrietan urtez urte adierazten zizkioten elkarrri, hamabi hilabetez gertaturikoak. Gaurregun, Bushen zorbioak gure egongelaraino zuzenean sartzen diren bezalaxe, eskutitz bat bost segundutan igor dezakezu munduko beste puntaraino, modem betez ekipaturiko

faxaren bitartez. Bidean galduko ez den segurantzarekin, gainera.

Mundua abiaduraren erokeria bizitzen ari da. Teknologi ikerketan estatubatuar eta japoniarrak inbertitzen ari diren diru kopuruak ikaragarriak ditugu. Badirudi japoniarrek abantaila hartu dietela Sam osabaren senideei; baina, adituek diotenez, eguzki sorberriko inperioaren menpekoek ez omen diete oraindik ifaramerrikarrei itzulezineko aldea atera.

Elektronika, errobotika eta industria astunean aurrea hartu badute ere, garapen luzeagoko teknologiak Bushen ekipoen eskuetan aurkitzen omen dira. Beraz, kontsumozko elektronika, argazki makina eta berebiletarako industriei dagokioenez pelikulako azkarrenak japoniarrak badira ere, bestelakoetan Carl Lewisen kideak ditugu nagusi.

Gurean, berriz, abiadura geometriko arrotz horri nolabaiteko balazta ipintzeko, **Ke-paSa-ko-le-gi** gehiegi ditugula uste dut. Azken bagoiko txartelera abonaturik bageunde bezala. Kasu honetan muturrak ez dira konbergente.

JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL

Memesa
79 42 22

Onduline



TXOMIN HERIZ

eraikuntzarako materialak

Biltegia: Bidekruzeta, 1 Tfnoa: 79 23 18

On dagokionari

Ezagutzen banauzu, ongi dakizu ez naizela sekula santan polemikoa izan, eta horregatik, hain zuzen ere, etzazula pentsa oraingo honetan nire burua halako liskarretan ikusi nahi dudarik. Dena den, nere lagun eta lankide on bati azken egun hauetan ez zaiola merezi duen beste justizia egin uste dut. Inor gutxik izango du dudamudan gaur eguneko "Mondra" taldeko atezainak baduela gaitasun eta ahalmena gure mailako edozein taldetan aritzeko, eta, seguru asko, baita kategoria handiko hainbatetan ere.

Iharduera askotan gertatzen den legez, eta mundu honetan gehiago, zoritxarrez, edonork okerren batzue burutzen dituen berehalak ekiten diogu ordezkoren bat bilatzeari, eta dagokigun kasuan ez da salbuespen izan, Gure atezaina eta lankide iaio honi ordezeko bat aurkitu diote, eta ni ez naiz hori ongi eginga dagoen edo ez esateko, erabaki zuzena hartu duten ala ez azaltzeko, baina bai ozenki adierazteko aurreko asteratean, 14ean, ATBko kamarek bere programazioan barrena nire lagunarekiko kaleratu zituzten irudi eta hitz gogor eta zorrotzei nire gaitzespenik erabatekoena igortzeko. Zertan ari zintean, atezainaren ordezkapena justifikatzen? Ez gaitu salbatu haibestetan bere geldiketa izugarriekin? Non dituzue ezkatututa aipatu geldiketak? Ez al du hori baino gehiago merezi?

Eremuz aldatuz, bestetik, eta amaitzeko, egun horretan bertan tirada handiko egunkari batean Arrasateko herriari, futboleko sailean, zegokion komentarioari agian hurrengo batean helduko diot, baina komentario hura ere... bikaina!

"Errurik ez duenak bota dezala lehen harria"

Beste bat arte, *ex toto corde*

Oharra: Nire agurrik beroena atezain berriari.

INAXIO GARRO


Mila esker Iñaki!

1991ko abenduaren 28an kaleratutako *Arrasate Express*-en inuxentadaz beteriko alean, erdi serio erdi broman, Arrasate Press aldizkariko Zuzendari-tzan izandako aldaketaren berri -Iñaki Mendigurenen eskuetatik Arantzazu Loidirenetara pasatzen zela- eman zen.

AEDko zuzendaritza Batzordeak, ohartxo honen bidez, azken lau hilabeteetan Arrasate Presseko Zuzendari bezala egindako esfortzu eta lan ederragatik bere eskerrik zintzoena eman nahi dio Iñakiri.

Eta nola ez, zuzendari berriari, hau da, Arantzazuri, aspaldiko laguna eta lankide ere izan dugunari, gure ongi etorria emateaz gain, aldaketa ugari ezagutzen ari den eta ezagutuko dituen aldizkari hau finkatzeko eta hobetzeko gure kolaborazio eta elkarlana eskaintzen diogu.

AEDKO ZUZENDARITZA BATZORDEA



gili gili
Iturriotz, 9 Tfnoa: 79 94 57

HIRE
Liburu eta paperdenda
Bidaiarako eta larruzko artikuluak
Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84

ZANGITU
C. B.
PINTURAK ETA
PAPER PINTATUAK
Olarte, 29
Arrasate
Tfnoa: 79 91 82
D. Irala
Bergara
Tfnoa: 76 19 54

ARAMAIO
okindegia
Maisu Guridi, 3
Tfnoa: 79 36 46

TTUKUN
Fotokopiak
Enkuadernazioak
Planoen erreproduktzioa
Offseta
Ferrerias, 23
ARRASATE Tfnoa: 79 46 62

PAZI-OLA SA
GALDARAGINTZAKO LANTEGIA
Zaldispé kalea, 2 ARRASATE Tfnoa 79 29 91

Beharapenetan erosten duzu? Hemen, ala kanpora joaten zara?



Jose Luis Lasaga
(Baserritarra)

Normalean beharapenetan erosten dut, baina Gasteizera joaten naiz erostera han hemen baino merkeago egoten da eta.



Mikel Azkunaga
(Ikaslea)

Ni ez naiz joaten erostera, nere ama joaten da eta Arrasaten erosten du.



Mertxe Herrero
(Langilea)

Merezi badu bai, erosten dut beharapenetan; baina kanpora joaten naiz aukera gehiago egoten delako.



Idoia Gorosabel
(Etxekoandrea)

Komeni bazait edo premina badut, bai. Batzuetan hemen eta beste batzuetan kanpoan.



Vitoriana Sanchez
(Etxekoandrea)

Nik ez dut beharapenetan erosten.



Jose Antonio Ortiz de Mendibil
(Langilea)

Beharapenak ez dagoenean erosten dut erosi beharrekoa, ez zaizkit gustatzen beharapenak.



Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76

Gauzak gordetzeko kutxa metalikoak
Otzaratzarrak
Giltzak gordetzeko armairuak
Erremintak eramateko gurdiak
Erremintak gordetzeko armairuak
Lan egiteko aulkiak

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak:

- * Diagnostikoa - Orientazioa
- * Estimulazio goiztiarra
- * Erreabilitazio funtzionala (Psikomotrizitatea eta hizkuntz berreziera)
- * Logopedia
- * Laguntza-terapia
- * Mota guztietako eskola arazoak, enuresia (Ohe-bustitzea), eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea, 10

ARRASATE TFNOA: 79 48 77

PUB HAIZEA



**BEHARREZKO
TELEFONOAK**

ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualatorria	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea	
(gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

GURTZE GORRIA

Bergara	76 55 76
---------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------	----------

ANBULATORIOAK

Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
(Txanda hartzeko)	77 03 46
	77 07 21
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16

ANBULANTZIAK

Gipuzkoako ambulantiak	45 87 44
------------------------	----------

UDALTAINGOAK

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22

ERTZAINZA

Arrasate	79 71 99
----------	----------

SUHILTAILEAK

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile	
burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea	78 28 00

MATXURAK

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78

GARRAIOAK


Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

**HIRUGARREN ADINARENTZAKO
ZENTRUAK**

Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

**KONTSUMITZAILEARENTZAKO
INFORMAZIOA**

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte	79 87 77
--	----------



17

OSTIRALA

- Zinea: Alai: "Arma Perfecta" (5-7.30-10).
- Trikitilariekin poteoa arratsaldeko 7.30tan.
- Baba afaria, Gaztetxean gaueko 9.30tan.
- Goardiako farmazia: Español, Iturriotz.

18

LARUNBATA

- Zinea: Alai: "La pequeña picara" (5-7.30-10)
- Goardiako farmazia: Corcuera, Musakola.

19

IGANDEA

- Zinea: Alai: "La pequeña picara" (5-7-9.30)

**Kirol
Agenda**

Futbola

Igandean, arratsaldeko 3.45etatik aurrera Atxabalpeko futbol-zelaian, Mondra-Bermio partidua.

Larunbatean, arratsaldeko 3.30etatik aurrera, Atxabalpen Arrasateko eta Aretxabaletako emakumezko taldeen arteko partidua.

Futbito

Larunbatetik igandera bitartean, Zaldibarko Txapelketaren barne partidu ugari.

20

ASTELEHENA

- Zinea: Alai: "La pequeña picara" (7-9.30)
- Masaia ikastaroa, hasera mai-lakoa, Yoga Elkartearen goizez 10etan eta arratsaldeko 6.30etan.
- Goardiako farmazia: Amezua, Santamaina.

21

ASTEARTEA

- Zinea: Alai: "La pequeña picara" (7-9.30)
- Sukaldaritza ikastaroa, San Andreseko Torrepe Elkar-

- tean, arratsaldeko 3etan.
- Gantxilo ikastaroa, AEDn, arratsaldeko 3etan.
- Goardiako farmazia: Aurora Ruiz, Maala.

22

ASTEAZKENA

- Gazteentzako sexualitate ikastaroa, Famili eta Gizarte Heziketarako Zentruan.
- Goardiako farmazia: Morales, San Andres.

23

OSTEGUNA

- Sendabelarre buruzko hitzaldia, AEDn arratsaldeko 3etan.
- Goardiako farmazia: Azkoaga, Ferrerías.

Ikastaroak

• Euskal Dantza


Gaztetxoei zuzendutako Euskal Dantza ikastaroa antolatatu du *Lore Gazteak* taldeak, 10-14 urte bitartean eta otsailan hasiko da. Ostegunetan 6.30etatik 7.30etara izango da. Izena ematea nahi duten guztiek Gazteentzako Informazio Bulegoan eman beharko dute.

• Masaia

Arrasateko Yoga Elkarteak hasierako masaia ikastaroak antolatu ditu bi eratara. Lehengo astelehen eta azteazkenean izango da, goizez 10etan eta arratsaldean 6.30etan. Besta aste iraungo du eta urtarrilaren 20an hasiko da. Bigarrena, berriz, bi asteburutan izango da, urtarrilaren 25-26an eta otsailaren 8-9an, Jose Luis Pasealekua 28 B- Altamira auzoan. Informazio gehiago edo inskripzioa egitea nahi dutenek 79 35 76 telefonora deitu beharko dute.

• Dendarientzako Gestio Ikastaroa

Bergarako UNEDeko Zuzenbide Departamentuak merkataritari zuzendutako ikastaroa antolatu du merkataritzaren alderdi juridiko, fiskal, laboral eta finantzakoen ikasketa eta ihar-



dueran trebatzeko. Irakaslea Alejandro Muguruza, Donostiako C.E.A.koa izango da. Otsailaren 18tik Apirilaren 30era arte iraungo du eta astearte eta



Gaztetxean babajana

92ko ekintzen aurka

Arrasateko Gazte Asanbladak, hile honetarako hainbat ekintza antolatu ditu. Alde batetik, urtarrilaren 17an, gaur arratsaldeko 7.30etan, trikitilariekin poteoa. 9.30etan, berriz, Gaztetxean baba afaria izango da aurten estatuan izango diren ekintzen aurka, EXPO-92, Olinpiadak, Amerika deskubritu zenaren 500 mende urrena eta Madril Europako hiri kulturala izendatzearen aurka. Ondoren, etxalero jaurtiketarekin gaztetxea zabalduko da.

Bestalde, Urtarrilaren 26an, igandea, mendi irteera bat egingo da. Joatea nahi duten guztiak Seberon goizeko 8.30tarako egon beharko dira.

Azkenik, urtarrilaren 31an, ostirala, futbolin txapelketa izango da.

Ekintza hauetan parte hartzea nahi dutenak Gaztetxean apuntatu edo informazio gehiago jaso dezakete.

ostegunero 6.30etatik 9.30etara izango da. Matrikula prezioa 20.000 PTAKoa da eta urtarrilaren 14tik Otsailaren 12ra arte izango da matrikula egiteko epea. Ikastaroa teoriko praktikoa denez, ikasle kopurua mugatua izango da. Informazio gehiago nahi dutenak 761342-43 telefonora deitu edo Bergarako UNEDeko Zuzenbide Departamentua, S. Martin enparantza, 1, helbidera joan daitezke.

• Zergak

Bergarako UNEDeko Zuzenbide Departamentuak Aholkulari fiskal eta Zuzenbide eta Enpresa Zientziei Lizentziatuei

zuzendutako ikastaroa antolatu du. Ikastaroaren helburua zergak ezagutu eta haiek kitatzen terebatzea da. Irakaslea German Valderrama Carranza, Donostiako CADE enpresako izango da. Otsailaren 18tik Apirilaren 14era arte iraungo du eta astearte eta ostegunero 6.30etatik 9.30etara izango da. Matrikula epea urtarrilaren 14tik otsailaren 12ra izango da eta matrikula 15.000 PTA izango da arrunta eta 8.000 PTA UNEDeko ikasleentzat izango da. Ikasle kopurua mugatua izango da, ikastaroa teoriko-praktikoa denez. Informazio gehiago nahi dutenek 761342-43 telefonora

dei egin dezakete.

• Neumatika eta hidraulika eta zenbakizko kontrolerako hastapenak MHCN eskuzko programa.

Gipuzkoako Foru Aldundia-ren ekonomiako departamentuak neumatika eta hidraulikari buruzko eta zenbakizko kontrolerako hastapenak MHCN eskuzko programa ikastaroak antolatu ditu. Urtarrilaren 27an hasiko da Eskola Politeknikoan eta 90 ordukoa izango da. Informazio gehiago nahi izanez gero, 794700 telefonora deitu eta Isabel Mangana Porteiroz galdetu. Ikastaroaren arduraduna Jabier Mendiluze Gofii da.

Erakusketa

• Santamasetako argazki lehiaketa.

Santamasetako argazki lehiaketan parte hartutako argazkiak urtarrilaren 19ra arte, igandea, egongo dira ikusgai Montteroneneko erakustokian, ohizko ordutegietan.

Irteera

• Urto Mendatea-Arano ibilbidea

Besaide Mendizale elkar-teak urteko lehengo irteera antolatu du, Urto Mendatea-Arano ibilbidea.

Irteera urtarrilak 26, igandea, goizeko 7etan Garibai geltokitik, eta itzulera iluntzean izango da. Izena emateko urtarrilak 20, 21 eta 22 Besaide egoitzan 7etatik 8.30etara. Bazkariarekin eta bazkideak direnak 2.800 PTA bazkide ez direnentzat 3.100 PTA eta gazteek 2.400 PTA ordaindu beharko dute. Bazkari gabe bazkideek 800 PTA, bazkide ez direnek 1.100 PTA eta gazteek 400 PTA ordaindu beharko dute.

“.....
Gainera, indarrez emakume bat gizon batekin parekatzea zaila da. Azken bi urteotan, ordea, Arrasateko afizionatu baten kontra jokatzeko du: “Txikito de Langaran gizon txikitxo da eta indarrez neure parekoa. Gehiagorekin ere jokatu dut eta irabazi ere askotan, malizian edo neu gehiago izan naizelako”.

(Reyes Azkoitia pelotariak Egunkarian 1992-1-11)

“.....
Koherentzia alde batera utzirik, bere susmo eta errezeloak nolabait azaldu izanik ere, ez deritzot modurik egokienez egin zuenik. Jonek egin duena inongo lehiaketatan ez lukete onartuko, bertsotan bakarrik barka liteke (...) baina dena ezin justifika liteke zarata eta oihartzun gehiago izango duelako bakarrik.

Azkenik, galdera bat: zer egin behar du Jonek 93ko txapelketa nagusian? Hari muzin egitea izango litzateke lehen koherentzia seinalea”.

(Xabier Euzkitzek Argia astekarian)

“.....
Ez genuen igarri Guardia Zibila zenik. Karrasi askoren ondoren eta lanpara batekin itsutu ondoren, eskalaretara atera eta hormaren kontra jarri gintuzten.

Ni seguru nengoen eskuin muturreko talderen baten okerra zela, Herri Batasunako parlamentariaren izen bera izanik, nigana zetozela pentsatu bait nuen.

(...) tratua serioa izan zen ikutu ez gintuzten arren, 14 urteko nire semea bakarrik ikutu bait zuten, bira egitekoa egin zuenean lepotik heldu zioten eta.

Ez dago akatsik onartzerik, giza eskubideen aurkako atentatua da hori eta”.

(Itziar Aizpuruak, Jesus Arzamendi arrasatearraren emazteak El Mundo del Pais Vasco egunkarian)

Nolakoa da taxi zerbitzuaren egoera Arrasatean?

Arrasaten, gaur egun hamar taxistak egiten dugu lan. Araudiaren arabera, taxi gehiago izatea dagokio Arrasateri, baina errealitatea beste gauza bat da, hemen automobila duelako jende gehienak. Horrek lan asko kendu badigu, hemen bertan mezulari enpresa bat sortzeak ez digu gutxiago kendu, Eroskik ere bere autobus propioa jarri du, garraio-enpresek autobus txikiagoak jarri dituzte... lana gutxitu egin zaigu azken urteotan.

Bestalde, tarifen kontua aipatzea interesgarri iruditzen zait. Udaletxean tarifen zerrenda aurkeztu genuen eta oraindik ez dizkigute onartu, gauza batzuetan adostasunik lortzen ez dugulako. Dena dela, tarifa horiek aplikatu egiten ditugu. Autoa mugitzearren, 400 PTA kobratzen ditugu eta azalpenik behar izanez gero, bezeroak zerrenda eska dezake.

Azkenik, guardiako taxiaren arazoa aipatuko nuke. Udalak gu guztion zerrenda dauka, telefono eta guzti. Udalak eman beharreko hurrengo pausua zerrenda hori Ertzantzari ematea litzateke, gu Ertzainak deitutakoan bakarrik mugituko gara eta. Gauean taxia erabili nahi duenari prezioen berri eman beharko dio Ertzainak, identifikatu egin beharko du, ordaindu dezakeen edo ez jakin beharko du. Guzti hori Udalak aipatutako tarifak onartzen dituenean gertatuko dela pentsatzen dut. Ordu-ra arte, itxaron egin beharko dugu.

MANUEL BLANCO,
ARRASATEKO TAXISTEN ORDEZKARIA.



Kabia altzariak

Gipuzkoako Etorbidea, 28 ARRASATE Tfnoa: 79 27 70



Zurgin Kantoi, 2 Tfnoa: 79 20 04 ARRASATE

MUSAKOLA OSTATUA

Taberna
Jatetxea
Bazkariak
Bodak
Banketeak
Gelak

Gipuzkoako Etorbidea z/g
Tfnoa: 79 20 50



Lehenago epaitegia zegoen lokala da jende gehienak eskatua.

Kultur taldeak lokalen zain

Udalak 35 lokal ditu, horietatik 8 hutsik

Arrasaten 23 kultur talde daude, talde hauen artean, espeleologia, dantza, zeramika, AED, SUDC, Tailagintza, yoga, abesbatza, argazkia, gaiteroak, konpar-sa, skaut taldea, antzerkia, hankapaloak, eta abar. Horietatik 9k badute lokala.

Udalak talde hauei diru laguntzak eta lokalak emateko orduan jarraitzen dituen erizpideak honako hauek dira: bazkide kopurua, partaide kopurua, herrian duen proiektzioa, elkarteen in-iziatiba, euskararen erabilera, eta for-mazio arloan egindako lana.

Udalak dituen 35 lokaletatik, 8 hutsik daude eta hauetatik batzuk ez daude oso egoera onean. Okupatuta dauden lokalen artean, umezaintza, pelota elkarteak, AED, SUDC, Eskualdeko ospitalaren biltegia, uren biltegia, zikloturista taldea, zeramika tailerra, eskolaurreko gelak, udaletxeak, almazena, dro-gomenpekotasuna, mankomunitatea, IMI, gazte zerbitzua, talde psikopeda-gogikoa, azoka, kultur etxea, liburute-gia, euskaltegia, jubilatuen etxea, dau-de besteak beste.

□ Isuna

“Mauricio Arregi” enpresari 150.000 PTAko isuna ipiniko dio Udalak, Arrasate Pasealekuko 1go zenbakiko etxebizitzako eraikuntza, metro erdi altuago egitearren. Dagoeneko metro erdi horri aprobetxamendua kendu zaio.

□ Santa Barbarako Urbanizazioa

Santa Barbara Parkeko urbanizazio-brak egiteko, Eusko Jaurlaritzarekin Lankidetzak Hitzarmena sinatzeko Alkate Lehendakaria ahalmentzea akordioa hartu du Udalak.

□ Gorpuak hobitik ateratzea

Aurtengo martxoaren 2tik aurrera hasiko dira Arrasateko Udal Hilerriko 14 eta 15 zenbakidun taldeetako gorpu-hondarrak hobitik ateratzeko lanak. Udaletxeke iragarki-taulan eta hilerrian bertan ipinita dagoen zerrenda horretako pertsonaren baten gorpu-hondarrak jaso nahi dituzten guztiak Hilerriko Bulegora joan beharko dute, otsailaren 3tik aurrera, honako ordu hauetan: goizez 10-11 eta arratsaldez 2,30-4.30 larunbat eta igandetan ezik.



Construcciones ARRASATE S. L.

Udalpe, 5 Etxabehea. Erguin auzoa. Tfnoa: 79 04 46
ARRASATE

□ Ferixalekuko aparkalekuak

Ferixalekuko jolas tokia asteburuetan aparkaleku moduan erabiliko da eta 75 kotxerentzako tokia dago. Ostiraletan 6etatik aurrera eta asteleheneko goizeko 7etara. Ordu hauetatik kanpo kotxerik ezingo da utzi, bestela, gruak eramango eta isuna izango du.

□ Udalaren oharra

Ur, zabor eta estolderiaren zerga, urtarrilaren 20ra arte ordain daitezke borondatezko epean.

□ Chapimeren zozketa

Chapime tailerrean, azaroaren 15etik abenduaren 15era, Citroën ZX autoa probatu zutenen artean bideo kamara bat zozketatu da. Sariduna, Julio Horriilo izan da.

□ Igerilekuko txartel magnetikoa

Aurten igerilekuan sartzeko txartel magnetikoak behar izango dira eta txartel gabe joaten denak ez du sartzerik izango. Dena dela, txartel magnetikoak zortzi hilabete barru arte ez dira helduko, beraz, ordurarte kiroldegian sartzeko ez da txartelik behar izango.

□ San Andrés auzoa

Kontxi Malet soziologoari San Andresko Birgaikuntza Plana idatzi eta koordinatzeko asistentzia teknikoa ematea erabaki da, 2.205.767 PTako aurrekontuarekin.

ONGI ETORRIA JAIÖBERRIEI

Xabier Tena Garaitonaindia, urtarrilaren 8an.
Deiane Perez Soriano, 12an.

EZKONBERRIEI ZORIONAK

Juan Inazio Montiana & Miren Karmele Zubizarreta. Urtarrilaren 11n. Elizaz.

Txandaka

TRAKATAN, TRAKATAN HIRU ERREGI

1.992ko urtarrilaren 6an.

Egun argia, alai sortuzen. Oraindik azken erregaluetan jaso eta bigarren trimestreko lana hurrengo egunean hasteko perezia dastatzen ari ginen "caja tonta" ikusten genuen bitartean. Ilundua zegoen eta pertsiak jeitsiak genituen.

Halako batean tirohotsak entzun genituen. Andreak esan zuen: "baten bat eskopetaz ari da". Balkoitik begiratzeko sukaldera joaten hasi nintzen eta orduan...sarrerako atea erortzen da nere aurrean eta pertsona armatu batzu hasten dira karraxika. Nik galdetzen diet: "¿Pero qué pasa?" Erantzuna: "Fuera, venga, todos fuera". Eta bultzaka eskailerara eramane gaituzte. Han paretari begira eskua altxa arazten digute eta "que no muevan ni los mocos" esanez zer gertatuko den zain geratzen gara gu.

Pentsatu ez baina burutik pasa bai delako terroristaren bat baldin badago eta iheska hasten bada, gu eskaileran izango garela bi aldetatik lehendabiziko tiroak jasotzeko "blanco" a. Eta egonegin behar. Hiru, lau, bost minutu, ez dakit. Denbora luuzea.

Gero, konfusioa izan dela, ezkerrean sartu beharrean eskubira joan direla, ilun zegoela, eta abar.

Orairela direla hilabete batzu neure lagun batekin hitz egiten ari nintzen lekutik hamar metrotara Antiguoko kalean gizon bat tiroz hil zuten.

Orairela urte batzu neure lehengusu baten gorpua komando autonomo



Jesus Arzamendi
(*)

batek hila lurperatzera neure sorbaldan eramane nuen.

Orairela dela urte dexente bide bazterrean poliziaren kontrol batean, zain nengolarik gazte bat tiroz hiltzen ikustea tokatu zitzaidan.

Eta guzti hori hemengo pertsona "normal" baten bizitzan.

Egun hauetan bai izan dudala denbora pentsatzeko eta atera dudane lehendabiziko ondorioa izan da ez da-

goela deretxorik, biolentzian, biolentziarekin, biolentziapean, biolentziaz bizitze-

ko. Gainera une berezi bat bizitzen ari gara. Europa aurrean, barnean, sarreran gaude. Eta gure kezka nagusia ez bada bakarria teknologia mailan, ekonomi mailan, konpetenteak, konpetitiboak izatea da.

Hala ere badago zerbait gehiago: Biziazaren Kalitatea.

Eta hori biolentzia gainditzetik pasatzen da. Eta hori giza-erlazio hobekuntzatik pasatzen da.

Nik maite dudane pakea ez da kanposantukoa. Nahiago dut geure artean diferenteak izanik, elkarrekin bizi eta elkar laguntzen gaitz bagara delako bizi kalitate hori eskuratzeko.

Bestela, sasi "seguridad ciudadana" baten atzetik gabiltza, sasi lege batzuen bidez. Ez diot inori desiratzen halako esperientziarik aurrerantzean izaterik.

Erregeak beste erregalu gozoagoak ekar diezazkizuetela. Eta badakizue: Erregeon erregaluetan...denon artean egiten dira.

EHUKO IRAKASLEA

IOSEBA KONTENEDOREAK




Uriburu, 23. 4.a eskuma.
Tfnoa: 79 61 18

ARRASATE

ENARA OSAGIRRIAK

Maalako Errabala, 21
Tfnoa: 79 62 32
20500 Arrasate





Eskola Politeknikoan 2.000 pertsona inguru mugitzen da egunero

Eskola Politeknikoko Batzarra

Diru-kontuak azaldu eta kargu berriak hautatzeko

Atzo osteguna hilak 16, Eskola Politeknikoan Batzar Nagusia burutu zen. Horrelakoetan ohi denez, bilerari Azken Batzar-aktaren onarpenaren txostena irakurriz eman zitzaion hasiera. Ondoren, 1990-91 ihardunaldiko txostena eman zen ezagutzera eman zen, diru-kontu eta balantzearen azterketa eta onarpena egiteko.

Txostenak zioenaren arabera, 1990-91 ikasturtean Instituto Politeknikoko ikasleak 964 izan ziren eta Injenerutza teknikoko ikasleak 926; horietaz arduratzeko, 209 langile izan ditu Eskola Politeknikoak, 108 irakasleak. Kanpora begira ateratako proiektuak, 76 izan ziren eta 7 parte hartze Europar programa eta hitzarmenetan. Horretaz gain, GOIER, atzerrian ikasketak egin nahi dutenei laguntzen dien erakundeen zerbitzuak erabili dituzte 52 ikaslek, beken bitartez. Saiolan-en bultzatutako

proiektuak, berriz, 4 izan dira eta Iraunkorreko ikastaroetan sartutako orduak 5.024, igoera nabaria iazkoekin konparatuz gero. Diru kontuei begirada bat emanda, txostenaren arabera, 1.990-91 ikasturteko gastuak 1.087.694 milioi PTAkoak dira eta inbertsioak 152.647 milioi PTAkoak.

Aurtengoari begira, 1.991-92 ikasturteari, 1.129.930 milioi PTAko gastuak aurrakusten ziren eta 141.650 milioi PTAko inbertsioak. Guzti hori ekonomian. Batzarrean, kontseilu errektoreko kide berrien eta kontuhartzaileen aukeraketa ere egin zen.

Aurten, 961 ikasle ari dira Instituto Politeknikoan eta 955 Injenerutza Teknikoan. Datorren ikasturtearen aurrean, goi-mailako injenerutza teknikoko saila martxan jartzeko asmoa zegoen. Argi dagoenez, Eskola Politeknikoan garai berrietara egokitzeko ardura dago.

Usteak uste

Aurreko astean eta atal honetan Amaia Jauregi gure lankideak idatzitako artikuluxoak pentsarazi egin zidan.

Hainbat eta hainbat gauza esan eta idatzi dira estreinatu berria dugun 1992. urte honi buruz: horien artean, duela 500 urte gertatutako ekintza bat gogorazi digute behin eta berriro.

Aipaturiko lantxo horretan aspalditik sufritzen ari garan langabezia gogorazten zaigu. Baita salatu ere.

Langabezia. Hainbat gazte eta langileen nahi gabeko kidea. Beharturiko kidea. Atzo, gaur, bihar. Eta...auskalo noiz arte izango den gure artean, zoritxarrez. Gaitz txarra baina ez bakarra.

Gaitz horrekin loturik dagoen beste errealitate bat salatu egin beharko genuke ere: *solidaritaterik eza*.

Gure Arrasate honetan daukagun langabezia porzentaia gogorra izanik, ez dugu inolako solidaritaterik ikusten; arrastorik ere ez. Norberekeria edo indibidualismo huts batetan bizi garela dirudi. Triste eta sinestezina, bai, batez ere azken berrogei urteotan langileen emantzipazioaren alde herri honek egin duen burruka kontuan izaten badugu.

Enpresa mailan ahaleginak egin baziren ere, ezin genezake berdin esan jokaera indibidualak aztertzeke uean.

Noiz arte egoera hau?

J. R. ELORTZA

**ARRASATE
PRESS**



77 05 65

URRATS

AHOLKULARITZA

GARIBAI, 3

Tfnoa: 79 87 74

ARRASATE






**Kanaria
Irletara bi
lagunentzako
bidaia.**


Renault Clio 1.1 CL (F. F.)

Sari paregabekak

Beheko sei denda horietakoren batean erosketak egitean, bi sari bikain hauek zeureganatzeko aukera izango duzu, urtarrilaren 14ean ARRASATE PRESSEn egingo den zozketan parte hartuz.




Iturriotz kalea, 8 ARRASATE
Tfnoa: 77 04 01



Erikite S.L.
SOINUA • BIDEOA • TB • KOMUNIKAZIOA

Otalora, 25 ARRASATE
Tfnoa: 77 13 20



Maalako Errabala, 5 ARRASATE
Tfnoa: 79 19 25



SARITUAK

- **Renault Clio 1.1 (F.F):
KOLDO OIANGUREN**
- **2 pertsonarentzako bidaiak
Kanariar irletara:
MIGUEL A. PASCUAL CASADO**

onetako Fototrukoaren irabazlea: LEIRE BEDIA



Kataide Poligonoa. ARRASATE
Tfnoa: 79 60 10



Maala Errabala, 13 ARRASATE
Tfnoa: 79 92 76



J. Markiegi
JANTZIDENDA

Olarte, 2 ARRASATE
Tfnoa: 79 15 32

□ **Eli Galdosen bisita**

Joan zen urtarrilaren 16an, Eli Galdos diputatu nagusia Leintz bailarako herrietara etortzekoa zen, Alkatearekin Arrasateri buruzko hainbat gauza zehazteko.

Nahiz eta orain dela aste bete iragarrita egon bere bisita, azken orduan atzeratu egin zuen ezin zelako etorri eta ez da zehaztu hurrengoan noiz etor daitekeen.

□ **Trafikoa moztuta**

Urtarrilaren 14ean, eguerdian, Otorala kalea trafikorako bi zatitan moztuta egon zen. Arrazoia, Zarugaldeko etxe bat konpontzen ari direla eta Otorarako beste etxe bat ere konpontzen ari direnez, bi grua kale erdian zeuden. Beraz, hasieran aipatutako kaletik, Otorala kaletik ezin zen kotxerik pasa eta bitartean trafikoa Zarugalde eta Olarte kaletik ipini zuten.



Bergarako bide berria Etxezarretatik pasatuko da.

Arrasate-Bergara Etxezarretatik

Aramaioko bidea ere konpontzeko

Arrasatetik Bergarara bitartean egin behar den bidea Deba ibaiaren ezkerretatik ez egitea erabaki da. Diputazioak leku honen ezaugarriengatik eta gero Maltzaga Urbina bidearekin lotzeagatik, atzera botatzea erabaki du. EKI ekologista taldeak bere ezadostasuna azaldu du bidea ibaiaren eskumatik, Etxezarretatik zehar pasatuko delako eta Bergara eta Arrasateko Udalei eskatu die Diputazioari esijitzeko bidea Etxezarretatik pasatzeko plana bertan behera uzteko. Proiektuak aurrera ja-

rraituz gero, obra-lanak 1993. urteko lehenengo hilabetetan hasiko lirateke.

Bestalde, Gipuzkoako Diputazioak Arrasateko Udaletxera bidali du Arrasate-Aramaionako bidea, Arabako mugara artekoa hobetze eta zabaltzeko behin betiko proiektua. Aurrekontua 251.467.100 milioitako da. Zabalera zazpi metrotakoa izango da eta metro bateko arzena, horrela bada, abiadura orduko 80 kilometrotakoa eta leku batzuetan lehen bezala 40 kilometrotakoa izango da.



ESTETIKA-ZENTRUA
 lurrundegia, opariak, jostailuak
Zaruga
 Kanpantorpea, 4 Tfnoa: 79 12 19

VE ECUADOR
 Kontzeziño, 2
 ARRASATE
 Tfnoa: 79 14 06

BIONA

 Zurgin Kantoi, 2 Tfnoa: 79 20 04 ARRASATE

SAMEGO GARBIKETAK

 Uriburu, 24
 ARRASATE
 Tfnoa: 79 70 39



協同組合の町から
バスク・モンドラゴン

石塚秀雄

DONOSTIA
SAN SEBASTIAN ↑
BERGARA ↑
← erdialdea
← centro ciudad
← udaletxea
ayuntamiento
← eskualdeko kapitalea
← hospital comarcal →

Hideo Ishizuka japoniarrak Arrasateko kooperatiben inguruan idatzi duen azken liburua jaso berri dugu. **"Kooperatibaren Herritik"** duizenburua. Kuriosoa da, liburuaren azalerako aukeratu duen argazkia eta Aretxabaleatik gatzela Arrasate erdikaldean dagoen kaleko kartela eta liburuaren barruan ageri den Euskal Herriko mapa, azalpen japoniarduna.

txutxumutxuak

Izen
PROPIOAK

● Santamasetako argazki lehiaketan 12k parte hartu zuten. Lehenengo saria, 25.000 PTAKoa, bildumarik onenari eman zioten eta **Roberto Mendik** irabazi zuen. Bigarren saria, 20.000 PTAKoa, argazkirik onenarentzakoa eta **Miguel Angel Arenazak** eskuratu zuen. Azkenik, **Jabier Hidalgo**, bigarren argazki onenaren saria jaso zuen. Bestalde, laugarren saria Txoronpiori buruzkoa zen eta hutsik geratu zen.


● **Judith Alzola**, 26 urteko bergararrak, Historia ikasketak egin zituen eta hiru urteko kontratua sinatu du liburutegirako. Lehen ere, hor egin izan du lan zazpi hilabetez.

● **Iosu Urzelai**, 23 urteko arrasatearra, da Mondrak fitxatutako atezain berria. Zuzenbidea ikasketak egiten ari da eta azken bi denboraldietan Tenerife Sur-en jokatu du.



Joan den asteko **Fototrukoaren** irabazlea **Markel Goikolea** izan zen. Markelek, beste askok moduan, ikusi orduko igarri zuten argazkikoa Patxi Goikolea zela. Kasualidade galanta aste honetako sariduna Markel izatea, bera, Patxiren biloba bait da.

SEGURTASUN-INJINERUTZA




Zure denda, lantegia, etxea, etab. **BABESTEN** ditugu **LAPURKETA** eta **SUTEEN** aurka
Legutianoko atea, 35 Tfnoak: 26 34 77 eta 26 33 44 GASTEIZ



GIZON ETA
EMAKUMEAREN
MODA

Otalora 2/g
Tfnoa: 79 20 50
ARRASATE



Dolores Kortazar Santa Agedako gaisoak **105 urte** bete ditu aste honetan, asteartean. 1887an Eibarren jaio zen Dolores eta 35 urte daramatza Aita Menni Ospitalean eta bere gaisotasunarengatik ere, bizimodu normala egiten du. Apetitua ere, bikaina. 85 urteko bere semeak bisitatu zuen.



Joan den urtarrilaren 8an, eguerdiz, **Larreako etxea** bota egin zuten. Toki horretan Larrea eta Gorostiza etxebizitzak egiteko asmoa dago, eta eskabadoraren agin zorrotzek gogoz eta gosez eraso zioten baserriar. Aurrerantzean arrasatearren oroimenean baino ez da geratuko.



Montte dendak Uribarri Etorbidean zuen lokala utzi eta denbora gutxi barru Arrasate erdira etorriko da. Lehen denda hori zegoen tokian, Udala plazan, Lan Kide Aurrezkiko sukursala irekiko dute.

IKAS TA ROA

GANTXILO ^{A.E.D.}
IKASTAROA

EMALEA: ASUN MENDIZABAL
EGUNAK: URTARRILAK 14, 21, 28 (asteaz) ^{asteaz}
ORDUA: ARRATSALDEKO 3 RETAN
TOKIA: A.E.D.N (PABLO URANGA)
ANTOLATZAILEA: "EKIN" EMAKUME TALDEA





Berandu, gizon!

Futbolean bezala, atezainak garrantzi handia izaten du futbitoan ere. Behar bada, atezainarena talde batean dagoen posturik garrantzitsuena izan daiteke, ikusleen "goal!" oihua erdibidean utz dezake eta. Argazkikoa ez da aipatutako kasua.



INBERTSIOAK ETA ZERBITZUAK
AHOLKULARI INMOBILIARIOAK

Anboto

Iturriotz, 11 ARRASATE Tfnoa: 79 20 48

- Errentamenduak
- Salmentak
- Balorazioak, etab.

fas **PRINT**

Inprimaketa-denda

Arrasate Pasealekua, 2
ARRASATE
Tfnoa: 77 06 11
Faxa: 77 09 86



Zaldibarko Futbito-txapelketa

A taldea

	Partiduak				Golak		Punt. guzt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Akaitegi Express	11	8	2	1	108	32	18
Fosforos	11	7	2	2	58	29	16
Zulu's	10	8	0	2	44	28	16
Los Heredia	9	7	1	1	50	17	15
Adobe	10	6	3	1	37	30	15
G. P. Noski	10	4	3	3	42	24	11
Jubilatus	10	4	3	3	44	53	11
Kriskibalda	9	4	2	3	42	28	10
A. Kristaldegia	10	4	2	4	29	25	10
S. Ind. Ugarte	10	3	2	5	32	43	8
Koxkas	10	2	3	5	37	58	7
Expert	9	1	3	5	26	55	5
Uglys	9	2	0	7	20	32	4
B. D. L.	10	1	0	9	18	69	2
T. San Josepe	10	0	0	10	23	87	0
Los Manchás	—	—	—	—	—	—	—
Neanthertal's	—	—	—	—	—	—	—
Tronkoteak	—	—	—	—	—	—	—
Total	148	61	26	61	610	610	148

B taldea

	Partiduak				Golak		Punt. guzt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Fasprint	12	8	3	1	59	25	19
La Banda	11	9	1	1	53	20	19
Los Motz	11	9	0	2	72	23	18
Potroak Lorategi	12	7	2	3	57	32	16
Navarros	11	8	0	3	45	21	16
Jo ta akabau	11	8	0	3	51	28	16
Danok Lagun	11	6	2	3	42	28	14
Sibilus Rover	12	5	4	3	29	28	14
Ganbelas	12	5	1	6	46	39	11
Anbotoste K. T.	11	5	1	5	37	42	11
Gau azkenak	11	4	1	6	32	39	9
Bukanak	11	4	1	6	34	51	9
Txintxes Osorik	12	3	1	8	26	46	7
Inter de Alima.	11	2	1	8	24	65	5
M. K. A.	11	2	1	8	23	61	5
Maria del Monte	11	1	0	10	24	69	2
Oleee!	11	0	1	10	26	63	1
Totxus	—	—	—	—	—	—	—
Total	192	86	20	86	680	680	192


C taldea

	Partiduak				Golak		Punt. guzt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Adelaida Haizea	12	11	0	1	62	12	22
Argi Ibilu Mapre	12	9	1	2	72	35	19
Gnu Seg. Bilbao	12	9	1	2	38	12	19
AEK	12	8	3	1	48	30	19
Diego Antonio	12	8	2	2	50	28	18
Bar Kajoi	12	8	0	4	71	25	16
Txokeros	12	6	2	4	45	32	14
New Laso Arregi	12	6	2	4	40	30	14
ATB	12	5	2	5	47	45	12
Aizpun bila	12	6	0	6	47	63	12
Aurrera Bolie!	12	4	2	6	36	32	10
Alaves	12	4	1	7	25	49	9
Arrasate Press	12	3	1	8	24	44	7
T. Monterrey	12	2	3	7	32	62	7
Sokoakoak	12	2	2	8	35	56	6
Shaktale	12	1	3	8	28	61	5
Bayer de Leniz	12	2	1	9	21	68	5
Whiskeria Linde	12	1	0	11	31	68	2
Total	216	95	26	95	752	752	216


D taldea

	Partiduak				Golak		Punt. guzt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Arrasate Kirolak	11	9	1	1	49	18	19
Artzankos Udala	11	9	0	2	49	23	18
Bar Artano	11	7	1	3	47	31	15
Notxingan Flo.	11	7	1	3	40	29	15
V. C. Daglas	10	6	2	2	45	16	14
Camerun's	10	6	2	2	41	21	14
Ghana	12	6	0	6	44	37	12
Pepelus	10	6	0	4	38	25	12
Bizkorak	10	5	1	4	35	27	11
Hirei	10	5	1	4	32	25	11
Arrasate Comer.	10	5	1	4	23	24	11
Nagixak	11	3	1	7	24	44	7
Kakajauri	11	3	0	8	24	46	6
Ezkinako Hontza	10	2	0	8	21	52	4
Sukumurus	11	0	1	10	18	52	1
Atxanta ke te...	11	0	0	11	15	75	0
Balaike	—	—	—	—	—	—	—
Resakas	—	—	—	—	—	—	—
Total	170	79	12	79	545	545	170

JMA JMA



Atezaina eta aurrelariaren arteko lehiak, bi taldeen arteko lehia noraino irits daitekeen erakusten digu. Izan ere, jokalarri guztien nahia bat bera izaten da: baloia ahalik eta denbora gehiengan kontrolpean izatea. Hori, dudarik gabe, erabakiorra suertatzen da.



LASO ARREGI argazkidenda

Alfontso Jakintsua Plaza, 3
ARRASATE
Tfnoa: 79 12 75

EMAITZAK

A taldea

Koxkas 3	Adobe 3
Jubilatus 2	Akaitegi Express 16
G. P. Noski 9	Sum. Ind. Ugarte 3
Uglys 0	Fosforos 3
Kriskibalda 12	B. D. L. 3
Expert 5	Talleres San Josepe 3

B taldea

Los Motz 2	Navarros 4
Potroak Lorategi 5	Oleel 5
Bukanak 3	MKA 2
Anbotoste K. T. 8	Maria del Monte 2
Danok Lagun 2	Sibilus Rover 2
Gau Azkenak 0	Fasprint 8
La Banda 2	Ganbelas 3
Txintxes Osorik 3	Inter de Alimantas 2


C taldea

Diego Antonio 9	Bayer de Lenitz 3
Aizpun Bila 1	Adelaida 7
Sokoakoak 3	Txokeros 3
New Laso Arregi 1	Gnu. Seg. Bilbao 4
Monterey taberna 1	Bar Kajo 9
Shaktale 2	AEK 2
ATB 4	Argi Ibil 7
Arrasate Press 2	Alaves 3
Whiskeria Linde 1	Aurrera Bolie! 12

D taldea

Nagixak 4	Notxingan florest 2
Sukumurus Anboto 3	Bar Artano 6
Artzankos Udalaiz 5	Ghana 1
Arrasate Kirolak 4	Camerun's 2
Bizkorrak 7	Kakajauri 2
V. C. Daglas 4	Hirei 4
Arrasate Comercial 3	Atxanta ke te... 0

Gure-Leku taberna



Zarugalde
Arrasate
79 20 29



ONTZI DENDA

opariak

sukalderako tresneria • banbua

**%25 eta 50eko beherapenak hainbat
artikuloetan**

Kurtze-txiki kalea, 2 Etxabea (San Andres auzoa) Tfnoa: 79 73 90 ARRASATE

Meson Manolo

**Eguneroko
janariak eta
enpresa bazkariak**

Bañez Dokorea kalea z/g



Zaldibarko Futbito-txapelketa

Txutak

Ustekabeak nagusi

Aurreritziak emateak arrisku handia izaten du, iragarritakoan ez asmatzea alegia. Joan den astean horixe gertatu zitzaigun, ihardunaldiak ez zuela inongo zer esanik emango idatzi, eta hara ustekabeak nola iritsi zaizkigun. Begira bestela: A multzoan Adobek ezin izan zion Koxka's taldeari irabazi eta berdinketarekin konformatu behar. B multzoan, berriz, Potroak Lorategi taldea ez zen gauza izan Olee! taldea gainditzeko, orain arte punturik ez zuen taldea hain zuzen; arraroagoa da oraindik, La Banda taldekoek Ganbelasekoekin galtzea, baina hori ere gertatu zen. C multzoan ere, gauzak ez ziren normal joan,

Txokeros eta Sokoakoak taldeen arteko neurketa eta Shaktale eta AEK taldeen artekoa berdinketan bukatzea ez da aurrez pentsa zitekeena. Azkenik, D multzoan Nagixak taldeak Notxingan Florest taldeari irabaztea ere, ez da egunero gerta daitekeen gauza. Argi dagoenez, ederki sartu genuen hanka; izan ere, sartzekotan horrela sartu behar da, osorik, zurikerietan ibili barik.

Asteburu honetako partiduetatik, interesgarriak gehiago izan badaitezke ere, bereziki lau aipatuko nituzke: Los Heredia - Zulu's, Potroak Lorategi - Navarros, Diego Antonio - Adelaida eta Artzankos Udalaiz - Bar Artano. Behar bada ez dira ihardunaldiko interesgarrienak izango, baina oraingoan ere, arriskatu egin behar eta aipatutakoak jo behar interesgarrien bezala. Asmatuaz gero, primeran, ez zait ahaztuko nire begi onari buruzko erreferentzia egiterik; kale eginaz gero, berriro aitortuko ditut nire erruak.

BEÑARDO KORTABARRIA

DATORREN ASTEAN

A taldea

Los Heredia	Zulu's
Uglys	Talleres San Josepe
Jubilatus	Adobe
G. P. Noski	B. D. L.
A. Kristaldegia	Fosforos.
Koxkas	Expert
Kriskibalda	Sum. Ind. Ugarte

B taldea

Los Motz	Olee!
Potroak Lorategi	Navarros
Gau Azkenak	Inter de Alimañas
Anbotoste K. T.	M. K. A.
Danok Lagun	Jo ta akabau
Ganbelas	Fasprint
Bukanak	Txinbes Osorik
Maria del Monte	La Banda

C taldea


Diego Antonio	Adelaida
Aizpun Bila	Bayer de Lenitz
Shaktale	Aurrera Boliel
New Laso Arregi	Txokeros
Monterey taberna	Argi Ibilii Mapfre
Alaves	AEK
Sokoakoak	Whiskeria Linde
Gnu. Seg. Bilbao	Arrasate Press
ATB	Bar Kajoi

D taldea

Pepelus	Notxingan florest
Bizkorak	Atxanta ke te merece
Artzankos Udalaiz	Bar Artano
Arrasate Kirolak	Hirei
Ezkinako Hontzak	Kakajauri
Sukumurus Anboto	Arrasate Comercial
V. C. Daglas	Camerun's Trikiti

RUMBA taberna

Iturriotz Kalea
ARRASATE




EGIDO

Automobilarentzako
ordezko piezak

Legarre Pabilioia.
ARRASATE Tfnoa: 79 62 11


Auto-soinua



Karburazioa

Autoarentzako osagarriak

Eskiak eramateko
parrilak, edozein
ibilgailurentzakoak




Urbarri Etorbidea, 16 ARRASATE 79 73 58

AGUSTIN

Jon Sarasua

Bertsolaritza astindu duen kazetaria



Jon Sarasua atxabal-tarra aspalditik da ezaguna bertsolari modura eta Gipuzkoako Bertso Txapelketako finalaren ondoren, bere izena askoren ahotan ibili da. Bertsolaria izateaz gain, Kazetaritza ikasia du eta orain tesia egiten ari da, soziologia ikasketekin batera.

— Saltsa gehiegitan ez, Jon?

— Behar bada bai, baina denetan gustora nabil eta egiteko modukoak direnez, bada, hor nabil. Dena dela, orain gauza batzueri denbora gutxiago eskaintzen diet eta denbora ikertzen pasatzen dut batez ere. “Kazetal hizkuntza euskal prentsa idatzian” izenburuko tesia egiten ari naiz. Horrekin oraindik luzerako daukat.

— Hala ere, honez gero kazetalgintzari dagokion ondorioz aterako zenuen.

— Beno, euskaraz egiten den kazetal-hizkuntzak arazo ugari dituela esan dezaket, bizio asko daude eta irtenbideren bat aurkitu behar zaie. Euskaraz egindako kazetalgintzaren tradizioz ez da ezagutzen eta agian hori izan daiteke abiapuntua, hizkuntz aldaketa behar-beharrezkoa da eta.

— Ikerketa egiteaz gain, kazetari lanetan ere aritu zara, ezta?

— *Euskadi Irratian* 2 edo 3 urtetan ibili nintzen udan eta gero hainbat kolaborazio egin izan ditut eta egiten ditut gaur egun ere: *Argian*, *Eginen*, *Punto y Horan*, *Herri Irratian* eta azken aldean *Egunkarian*.

— Nola ikusten duzu *Egunkaria* prentsan?

— Ni, informazio ugari behar duen pertsona naiz eta *Egunkaria* irakurtzen dudana egunkari bakarra da, dudana

informazio gosea asetzen dimalako. Aurrez pentsa zitekeena baino produktu hobea dela uste dut.

— Bertsogintzan noiztik?

— 10-11 urte nituenetik. Patxi Goikolea, Xanti Iparagirre eta Juanito Akizun eraginez biltzen hasi ginen eta talde jator bat osatu genuen, oraindik aurrera jarraitzen duena eta gainera bertsotan egiteko erreferentzi puntua izan dena niretzat. Hasieratik gustatu zitzaidan, eta ondo pasatzen nuelako joaten nintzen; gerora, oso

gustora ibiltzen nintzen eta oraindik hor nabil.

— Hasiera hasieratik txapelketetan?

— Taldekook hamabost urterekin izan genuen lehenengo, Donostian. Gure harridurarako ia txapel guztiakin itzuli ginen. Haren ondorioz hasi ginen apurka-apurka, herriz herri ibiltzen. Txapelketa Nagusian, lehen aldiz 86an hartu nuen parte.

— Gipuzkoako Txapelketako azken bertso hura, zergatik?

— Txapelketara joateko izan nituen presioen aurkako erreakzioa izan zen. Begira, nire burua ez nuen txapeldun bezala ikusten, txapeldunaren inguruan sortzen den atenzio gune hori izaterik ez nuen nahi. Denbora asko pasatu nuen pentsatzen, “eta hau egiten badut zer?” Badakit jendeak pena hartuko zuela, ez naiz egindakoaz damutzen. Gaur dauden joera batzueri tokea eman nahi izan nien: bertsolaritza apustu bezala hartzen duen joerari, txapelketetan atzean gelditzen direnez ahazteko joerari, txapelduna jainkotzeko joerari eta komunikabideetako morboari. Dударik gabe, txapeletik gertu ibiltzea ondo etorri zait adierazi nahi izan nuenak oihartzun handiagoa izan zezan.

— Bertso ona botatzeko orduan, zerk du garrantzi handiena, bertsolariak ala gaiak?

— Bertsolariak, noski.

— Bertsolariak beti botatzen du ahal duen bertsorik onena?

— Bai, beti, entzuleak hamar zein hamar mila izan. Bertsoa botatzen hastekoan, ahalik eta onena botatzen da. Baldintzena beste kontu bat da, bertsolari askok saio larregi egiten dituzte eta horrela ezinezkoa da bertso onak egiteko beharrezkoa den konzentrazioz izatea. Alde horretatik, bertsolariok seriotasunez eta errespetoz jarri beharko ginanteke entzuleen aurrean. Nola? saio gutxiago eginez. Gainera, horrela, beste bertsolari askok izango lukete herriz herri ibiltzeko aukera.

— Potoa?

— Ez ditut asko egiten, eta egiten ditudanean erdie-taz ere ez naiz konturatzen eta konturatutakoan beranduegi izaten da konpontzeko.

“
Gaur egun dauden joera batzueri tokea eman nahi izan nien”

Beherapenak, urtarrileko aldaparen atarian

Gabonetan egin ditugun gastu guztiak egin ondoren, nahiz eta gehienok asko gastatu dugula pentsatu,—izan ere Arrasaten batz besteko bakoitzak 10.000 PTA gastatu ditu gabonetan— beherapenetan gehiago gastatzen dugu artean, gabonetan gastatutakoa gutxi balitz moduan.

Urtarrileko aldapaz asko hitzegiten da garai honetan, jendeak sosak aurretik gastatu dituelako; hala eta guztiz ere, beherapenak heltzen direnean hainbat erosketa egiten da, horietatik asko ez dira izaten beharrezko direlako edo komeni delako, baizik eta beherapenak direlako eta erosaren erositzen.

Legeak

Dena dela, eta aipatu takoa aipatuta, gehienok gutxi dakigu beherapenetan indarrean dauden legeei buruz.

Arlo honetan dauden kontzeptu guztiak jakitea komeniko litzateke lehenengo. Likidazioa, negozioa itxi edo lekuz aldatu behar denean izaten da, dendak dituen produktu guztiak prezioz jeisten dira, horrela produktuak saldu ahal izateko. Sal-

doa, berriz, akatsak dituzten produktuekin bakarrik egiten da eta aurretik dendariak jakinaren gainean utzi beharko du eroslea akatsaz eta duen garrantziaz. Azkenik, denboraldiaren bukaeran

sasoi horretan saltzen egon diren produktuak merketzea da beherapena; horretarako, dendariak ezingo du beherapenarako produkturik erosi, gutxienez horiek hasi baino hilebete aurretik eskuratu

behar ditu eta horretaz gain, dendariak ziurtatu egin behar du hala egin duela. Produktuak beherapenen aurreko salneurria eta beherapenekoa izan beharko du, ez da nahikoa izango, beraz, zenbat merketu den adieraztea. Beherapenen iraupena hilebetekoa izango da gehienez ere. Eta azkenik, eskaparatuan adierazi beharko da beherapenen hasiera eta bukaera eguna.

Bestalde, Kontsumitzaileen Informaziorako Udako Bulegokoak (KIUV) esandakoaren arabera, Eusko Jaurlaritzak gai horri buruz ezarritako duen legeak, bazuen hasieran atal bat beherapenak abenduaren 21a edo ekainaren 21a baino lehen ezin zitezkeela ipini aipatzen zuena. Bizkaiko dendariak bere garaian atal hori errekurritu egin zuten, eta gobernu zentralak legearen zati hori antikonstituzionala zela esan zuenez, indargabe dago. Ondorioz, Arrasate eta Euskal Herriko dendari guztiak ez dute erizpide zehatzik jarraitzen beherapenak ipintzeko orduan. Arrasaten denda gehienek



Beherapenak, sasoi bertan saltzen diren produktuak merketurik dira

urtarrilaren zazpian ipini bazituzten ere, badira urtarrilaren 2an hasi zituztenak ere; baina lehen aipatutakoaren arabera, guzti hori legala da.

Deskontuaren portzentaia ipintzerakoan ere, beherapenak jartzeko datarekin gertatzen den moduan, dendariak ez dute erizpide bateraturik, hau da, dendari bakoitzak nahi duen portzentaia jeitsiko ditu bere produktuak. Denda batzuetan produktu guztiak ez dira ehuneko berearekin merketzen. Batzuk gehiago eta beste batzuk gutxiago merketzen dira.

Truko publizitarioak

Dendariak truko publizitarioak erabili ohi ditu eta horregatik, erosleak adi egon behar du, eta halakoetan gaizki daudenak salatu edo bere eskubideak azaldu.

Denda batzuetan denboraldia ondo joanez gero be-



Erosleek adi egon beharra izaten dute, gaizki dauden gauzak salatzeke.

herapenatarako ez dute sasoi horretako erroparik izaten eta orduan garai honetarako bereziki ekartzen dute erropa, debekatuta egon arren.

Beste truko bat itxuran akatsik ez duten produktuak saltzea izango litzateke, dendariak ondo jakinda gai-

nera akatsak dituzten produktuek saldoetarako izan behar dutela. Esate baterako, erropa denda baten norbaitek erropa bat probatzerakoan jostkuretatik etetzea gerta daiteke, nahiz eta erropa hori konpondu, ezin da beherapenetan saldu.

Bada aipa daitekeen beste kasu bat ere. Beherapenetan erositako produktu guztiak bueltatu egin daitezke akatsen bat izanez gero; dendariak aldetik jarrera ezberdinak egon daitezke, esate baterako, beherapenetan erositako produktuak dirilako ez dagoela itzultzerik, edo produktuaren orde, bale bat egingo duela; halakoetan derrigorrez produktua hartu eta berria bueltatu behar dute edo produktu bera edo horren balioa dirutan.

Beste hainbat truko ere egin daitezke, baina azkena aipatzearen, "bi baten prezioarengatik" izenez egiten diren kanpaina batzutan, aurretik produktuak zuen prezioa eta ondoren produktu biek batera dutena ezta prezio bera izaten, askoz altuagoa baizik.

Aholkua

Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoko arduradunak, Antton Fernandezek esan digunez, "Beherapenen aurretik zer nolako kalitatezko produktuak dauden salgai fijaszea komeniko litzateke eta zenbatean saltzen diren, gero beherapenetan engaina ez gaitzaten; zeren batzuetan beste kalitate bateko erropak ipintzen dituzte edo bestala, aurretik produktuak zuen balioa baino askoz altuagoan. Esate baterako, arropa batek aurretik 10.000 PTA balio bazuen, merkealdietan "lehen 12.000 PTA eta orain 10.000 PTA" ipintzen dute. Ikusten denez arropak prezio bera du, ez dute bat ere merketu.

Dena dela, edozein arazo izanez gero edo engainuaren susmoa dutenek, kontsumitzaileen informazioarako bulegora jo behar lukete. Arrazoia duen edo ez ziurtatuko eta arazoren bat badu, konpontzen lagunduko diogu"

**AUTO
ESKOLA**


ARRASATE

7etatik 8etara klase teorikoak

Olarte kalea, 30 ARRASATE Tfnoa: 79 89 89


Mondrak atezain berria fitxatu du

Mondra taldeak Josu Urzelai, atezain arrasatearra fitxatu du. Urzelaik 23 urte ditu, jubeniletan Mondra-ekin jokatu zuen, gero Errealean eta baita Sansen ere. Tenerife taldean bi denboraldi egin zituen eta lehen mailara igotzea lortu. Argazkian, kontratu berria sinatzen.



Hurrengo partidua

Porrot berria Mondrarentzat, eta nola ez! etxean jokatzen. Arraroa da Mondrarena aurtengo denboraldian, etxetik kanpo izugarritzko jokoa erakusten du nahiz eta emaitza onegirik ez lortu; etxean, ordea, emaitzak antzerakoak baina jokoa txarragoa.



Zergatik hori? batek daki, argi dagoena, jokalaria urduritasunez mugitzen direla Atxabalpeko futbol zelaiaren gainean. Urduritasuna nondik? hortxe kokka. Ikusleen aldetik presio handiren bat balego hori izango litzateke azalpenik errazena, baina azken aldean Atxabalpen biltzen diren ikusleak lasai dabilta, jokariengan aparteko eraginik egin barik.

Aldaketak ere ezin dira kontuan hartu, azken hiru partiduetan jokalaririk berberak jokatu dute eta, batzutan hain ondo eta besteetan hain gaizki!

Entrenatzaileari dagokio galdera horiei erantzuna ematea. Erantzun onena garaipen on bat izan daiteke. Lehen aukera, datorren igandean Atxabalpen bertan, Bermio taldearen aurkako partiduan. Ez da erraza izango, baina saiatuiko dira. Ez dago dudarik.

Besaideren urteroko batzarra

Hogeitabosten bat lagun bildu ziren Besaidek urtero egiten duen batzarrean. Elkarteko arlo desberdinen informazioa emateaz gain, aurtengo urterako prestatu den egutegia azaldu zitzaizen bildutakoei. Diru kontuetan ere, baikor: milioi erdiko superabita.



Emakume futbolarien derbia

Arrasate eta Aretxabale-tako emakumezkoen futbol taldearen arteko derbia jokatuko da asteburu honetan. Atxabalpen, larunbatean arratsaldeko 3.30etatik aurrera. Aurten-goan, pronostikoak arrasatearren alde.



ITSASKI
arrandegia
Arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
Arrasate 79 98 94

Gabriel Elorriaga Dka.

**Loditasuna • Zelulitia
Zelulolipolisiaren
tratamendua**

Santa Kruz, 24-1ª (1ª C Eskailera)
ARETXABALETA Tfnoa: 79 13 54

HUETO Doktorea

**Eztarria, sudurra,
belarriak**

Txanda eskatzeko: 79 81 11
79 81 00

Olarte kalea, 43 Arrasate

BENIGNA MENENDEZ ETA JULIA OTADUI

Jubilatu eta gero kirola egiten

Bi emakume hauen bezala, beste hirurogeitamarren bat jubilatu astean hiru aldiz biltzen dira, elkarrekin gimnasia egiteko. "Ni ez nabilen bat ere ondo, -dio Benigna Menendezek-gorputz guztian minak izaten nituela eta gimnasia egiten hasteko gomendatu zidaten. Harrez geroztik, primeran nabil". Julia Otaduiren kasua bestelakoa da, "Benoa, ez nintzen arrazoi berezi bategatik hasi, zerbait egitearren baizik eta oso gustora nabil. Hona etortzen ez naizenean, Yoga ikastaroetara joaten naiz eta bestela ahalik eta denbora gehien pasatzen dut Monterroneko parkean. Abaroa eta horrelako tokietan izaten den giro itxia ez zait gustatzen, nahiago dut zerbait egiten ibiltzea".

Hirugarren adineko gimnasia ikastaroetan parte hartzen hasi arte, ez Benigna eta ezta Juliak ere, ez zuten txandalik jantzi. Orduetik ahal duten toki guztietara txandalean joaten direla aitortzen dute, oso erosoa delako. Hasieran gogorra egin zitzaieela adierazten dute, baina orain ohitu egin direla. "Agujeta izugarriak pasa genituen lehen egunetan, baina dagoeneko ahaz-

tuta dauzkagu. Izan ere, badira bederatzire urte gimnasia egiten gabiltzala eta gorputza jarria daukagu. Batzuetan pereza ematen du etorri beharrak, baina beste gauza askotan moduan, hastea izaten dazailena. Orain ere, normalean huts egiten dutenak azkenengo hasi zirenak dira, gazteenak".

Gimnasia egiten dutenetik beraiek hobeto ibiltzeaz gain, ingurukoak ere gustorago dabilta. "Imajinatu -Benigna Menendezen ahoan-lehen egun guztiak kezuka, orain etxean ere lasaiago bizi dira".

Benigna Menendez eta Julia Otadui Musakolako Kiroldegian gimnasia egitera biltzen direnen artean, adinean zaharrenak dira: Benignak 73 urte eta Juliak 72, baina hala ere ez dute gimnasia uzteko inolako asmorik. "Ahal dugunera arte eutsiko diogu, egunero izango balira ere, etorriko ginake, gustorago gainera".

PODIUMA



◆ Centraljet berriro irabazle

Arrasateko saskibaloi taldeko mutilek izugarrizko partidua burutu zuten joan den larunbatean Juven taldearen aurka, liderraren aurka hain zuzen ere. Arauzko denbora berdinketarekin bukatu zen eta luzapenean arrasatearrak nagusitu ziren, 87-76 emaitzaz. Garaipen honi esker, arrasatearrak lehen mailara igotzeko lehiari sartzeko moduan gelditu dira. Joko ona aipatzeaz gain, Musakolako kiroldegian bildutako zaletuak txalotu behar, denbora guztian taldea animatu zuten eta. Emakumezkoen taldeak ere garaipena eskuratzea lortu zuten, 78-63, Getxo taldearen aurkako partiduan.

◆ Eskubaloikoak bikain

Sprintean ari dira Arrasate Kirolak eskubaloi taldekoak. Izan ere, azken aldean jokatu dituzten partidua guztiak finalak dira arrasatearrentzat. Mailaz igo nahi badute, partidua guztietan duten guztia ematera behartuta daude. Gauzak horrela, joan den astean arrasatearreu Elgoibarren aurka jokatu zuten eta baita garaipena eskuratzea lortu ere, 22-17. Emaitzaren arabera, garaipenak erraza dirudi baina partidua oso gogorra izan zen. Atsedenaldirako elgoibartarrek zuten abantaila markagailuan, baina erreakzio ona izan zuten Arrasate Kirolak taldeko mutilek eta bi puntuak lortu zituzten.

◆ Rugbykoak garaile

Aspaldiko partez, Arrasateko garaipena eskuratu zuen, oraingoan Plentziako Kakarraldo taldearen aurka eta 12-0 emaitzaz. Arrasatearrak jaun eta jabe izan ziren, zelaiaren gainean eta ez zuten inolako zailtasunik izan. Jubenil mailako taldeak ezin izan zuten gauza bera egin eta Irunen galdu egin zuten, 15-28 emaitzaz.

ZUBIZARRETA
TAILERRAK

Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE Tfnoa: 79 15 65

Hilbera
kafetegia

Uribarri Etorbidea
ARRASATE

Altzariak
Diseinua
Apainketa
M
ARENAZA

Bizkai, 1 ARETXABALETA Tfnoa: 79 08 07

“Urtarrileko aldapan”

Igartua txapel-
dun.

Zalantza barik, urtarri-lean izatzen dira “kros” gehienak. Ziklistei heldu zaie txapelketetan parte hartzeko ordua eta Euskal Herriko txapelketa igaro ondoren, Estatu mailako txapelketaren zaratak etorri jakuz. Aurreko domekan Burriana herrian, Castellon probintzian, ospatu zen txapelketa hori. Afizionatueta jaun eta jabe, Igartua eta profesional mailan euskaldunak denen gaitetik: Etxabe, Mujika, Zarrabeitia, Izagirre...

Iñigok pronostiko guztiak bete zituen: ez dauka kontra-



torik ez afizionatu mailan ez profesionaletan. Zirkuitoa uste baino errezagoa izan zen Iñigorentzat: hasiera hasieratik sekulako erritmoa jarri zuen.

Faboritoen artean Plák jarraitu zion zati batean, baina lehen bira baino ez zuen jasan.

Jose Ramon Izagirrek irteera eskasa egin zuen baina polito-polito aurrera egin eta Plá balentziarra atzean utzi zuen 46 segundora.

Jokin laugarren, Benito Duran zazpigarren eta Iurrebaso bederatzigarren geratu ziren.

Horrexek eman du aurtengoan, baina orain ere badabilta “motorrak” gertaketan, aurki Munduko Txapelketan parte hartuko dute eta.

Zurumurruen arabera, aurten profesionalek ez dute mundialean korrituko. Berri horrek, astinduko ditu ziklistoaren bazterrak. Izango da berririk datorren otsailean! Ordurarte, ba!


K. U.

BIDEO-EMANALDIA

Willow

Tokia: Monterron kultur etxea
Eguna: urtarrilak 18, larunbata
Ordua: arratsaldeko 4.30etan
Prezioa: 50 pezeta
Sarrerak: Monterronen

Antolatzailea: Arrasateko Udaleko Euskara Batzordea



Erreformaren inguruan

Esperimentalki erreformako bideak urratzen bost urte-tan ibili ondoren, duela bi urte sakonago murgildu gara norabide berrien arabera Hezkuntz Proiektu bat egiten.

Ordu asko eskatzen duen berrikuntza. Asko eta asko ulertu eta geureganatu beharreko kontzeptuak: Oinarri-zko Diseinu Kurrikularra, Ikastetxeko Proiektu Kurrikularra, propedeutikoa, dibertsitatea, etab. denak garrantzi handikoak, gure lanaren emaitzak hobe ditzaizaketenak.

Honetaz ikasten eta auzartzen igaro behar izan ditugun orduak kontzeptu

hauen gainera erreformaren muina oinarri-zko ideia batzuetan dagoela konbentzitu gaituzte. Ideia sinpleak, baina geureganatu beharrekoak, egiten ari garen ahalegina hutsa den ustean gel ez dadin. Hona hemen lau ideia hausnarketarako:

- Erreforma "talante" jarrerara bat da batez ere. Kalitatea hobetzearen ildotik, nora heldu nahi dugun etengabeko bilakaera eta hari begira eguneroko lana zalantzan jartzea, alegia, etengabe egiten ari garena kuestionatzea.

Ez dezagun pentsa erreforma lana, dokumentu baten, Ikastetxeko Proiektu Kurrikular borobil baten bilduman bukatuko denik. Hobekuntza bidea bukaezina

da eta irakasleok beti izango dugu zer hobetu, aldatu, kendu eta osatu.

Era honetara ulertuz, oraindik preskriptiboa dugun programaketa, lan hipotesi bat besterik ez dela sinistu behar dugu. Ez finkoa, heresia eta aldagaitza, irekia, malgua eta egoera bakoitzera moldagarria baizik.

- Praktika on batek teoriaren beharra du. Irakasleok betidanik teoria baztertzeko joera izan dugu, praktika teoriatik urrun dagoela argumentatuz. Helburuak finkatu eta eguneroko lana aztertzeko, erizpide argien beharra dugu eta erizpide hauek zehazterakoan teoria ezinbestekoa da.

- Edozein aldakuntza

emateko lehenengo baldintza aldaketaren beharra ikusten da. Irakasleagoa egiten ari den lanarekin gustora ez egotea edo hobetu nahi izatea da abiapuntua.

- Azkenik, garrantzizko ideia bat: kalitatezko eskola ez da bakarrik ikasle onengandik elite intelektual eta pribilegiatuak sortarazten dituen, batez ere ikasle guztiengandik, beraien garapenean, ahalik eta aurrerapausu gehien eman arazten duena baizik. Eta ahaztu gabe, "ikaslea" da guzti honen oinarrian dagoena. Bera eta berarengan garatu behar ditugun baloreak hurrengoan.

ERREFORMAKO TALDE
TEKNIKOA
HEZIBIDE

Parketa eta erradapiak jartzea Edozein egur mota leundu eta barnizatzeak



P. Garrido - J. J. Ugarte


77 07 93 Aretxabaleta

77 00 93 Arrasate

Pintura Monterronen

Udalak antolaturik, margo eta pintura ikastaroan ematen ditu Zesar Cimiano gazte arrasatearrak Monterron kultur etxekeo ganbaran. Arte Ederrak ikasi eta enkar-guzko lanetan dihardu. Asteazken, ostegun, ostiral eta larunbatez, arratsaldeko 5etatik 6.30etara umeak, eta 6.30etatik 8etara nagusiak izaten dira ikasle astean zehar eta larunbatean 9etatik ordubatera umeak berriz ere. Guztira 74 artista inguru dira ekaina bitartean lan hauetan arituko direnak.

Lantzen diren tekniken artean, marrazkia, ikatziria, akuarela, pastela, akri-likoak, tinteak, tenperak eta olioia daude, eta bakoitzak nahi duena lan dezake. Matrikula epea aspaldi itxi zen arren, badira oraindik banaka banaka izena ematera etortzen direnak, arte plastikoetarako Arrasaten dagoen zaletasunaren lekuko. Cimiano irakaslearen



eritziz, hala ere, arte mailan dena egiteko dago gure herrian, orainarte heziketan garrantzirik izan ez duenez, alde guztietan failatzen du eta. Egoera hori izan arren, zaletasunik badela iruditzen zaio. Mundu horretan diharduen jendeak argazkilaritza eta bestelakoetarako ere lokalak falta direla erizten dio, eta baita herrian denda espezializatuak ere, material aukera zabala dutenak.

Monterrongo ganbaran

daukaten lokalari buruz argia ez dela egokia uste du irakasleari, oso polita baina zikintzeko erraza dela, eta zutabe artean mugitzeko leku gutxi dagoela. Gainerakoan, gustora daude egiten duten iharduerekin eta iaz ikasturtearen amaieran ekainean erakusketan antolatu zuten moduan, aurten ere badute antzeko zerbait egiteko gogoia.

◆ Soziolinguistika

Adorez eta Atseginez Mintegiak aurtengo urterako ere soziolinguistikako bi ikastaro antolatu ditu. Urtrrilaren 18an hasiko dira eta maiatzaren 23 arte iraungo dute. Eskoriatzako Irakasle Eskolan antolatutako lehen ikastaroa Txepetxen lan teorikoa barneratzeko izango da. Ikastaroaren helburua ikasleak euskararen normalizazioa zer den barnera dezaten ahalegintzea da. Bigarren ikastaroa Txepetxen teorizazioa mamitua dutenentzat izango da. Teoria sakontzea da helburua etanorberak ekintza sozialen dinamika berria bideratzeko akuilu izan nahi du. Matrikula 15.000 PTAKoa da eta izena emateko 79 04 40 telefonora deitu behar da, Ion Iñakiz galdetuz edo AEDko Juan Luisi jakinaraziz 79 14 32 telefonora deituta.



IKAS TA ROA

AED ELKARTEA
 Pabilo Uranga 4 bidea | Tel: 79 04 46
 70500 ARRASATE | GIPUZKOA

Sendabelarrak

Emalea: Alberto Altube
 Equoak: Urtrrilaren 23.30 (oste)
 Ordua: 3 retan
 Tokia: A.E.D.n (Pablo Uranga)
 Antolatzailea: 'EKIN' emakume / taldea.

Marije Lezeta eta Elena San Martin

"Giro urbanoko gazteak eta euskara" liburuaren egileak

Marije Lezeta eskoriatzarrak eta Elena San Martin elgoibartarrak *Adorez eta Atseginez* mintegiaren ekimenez gazteen artean euskarak duen erabilpena eta harreraren ikerketa egin eta argitaratu berri liburu: "Giro urbanoko gazteak eta euskara".

— Nola pentsatu zenuten liburu idaztea?

— Majisteritza ikasten ari ginela soziolinguistika ikasgaia izan genuen eta ikasgai honetan lan praktikoa egin genuen. Lan praktikoa horretan eskola ezberdinetako gazteekin elkarrizketa batzuk egin genituen, handik emaitzak jaso genituen emaitzak eta plublikatu egin zitezkeela pentsatu zuen irakasleak.

— Nola egin ziren elkarrizketak?

— Ikastetxe ezberdinetako taldeekin egin ziren. Arrasaten bat, Bergaran beste bat eta Eibarren hiru. Lehenengo ikastetxean euskaldun eta erdaldunen taldea hartu genuen, bigarrenean talde euskalduna eta hirugarrean, bi



talde euskaldun eta beste bat erdalduna. Bi galdera egiten genizkien eta bakoitzaren iritziak jaso.

— Elkarrizketak egitea eta idaztea bion artean egin dituzue?

— Ez elkarrizketetan nik (Elenak) parte hartu nuen gelako beste batzue-

kin. Idazterik nahi genuen proposatu zigun irakasleak, gero *Jaztenez* argitaratzeko asmoz.

— *Jaztenez* argitaratu da baina horretaz gain, UEU, EKB eta *Adorez eta Atseginez* mintegiak liburu ere argitaratu dute.

— Bai. Idatzi eta nahiko

luzea irten zela ikusirik, eta gazteentzat izan daitekenez, argitaratu zitezkeela pentsatu zuten.

— Zer gai aztertzen du liburuak?

— Elkarrizketetan jasotako gazteen iritzietatik abiatuta, soziolinguistikari buruzko Txepetxen teoria-rekin lotu dugu, hau da, alderdi teorikoa alderdi praktikoaekin lotuta. Baina, Txepetxen teoria hain sakona denez, eta gazte gehienek gai horri buruz ezer ere ez dakitenez, honen teoria era erraz baten idaztea zen gure helburua edozein gazteek ulertu ahal izateko moduan.

— Nori zuzendutako liburu da?

— Hitzaurrean idatzita dagoen moduan, gazteek idatzita gazteendako. Dena dela, ez dakigu liburuari zer erabilpen eman behar dioten, hori aztertzeke beste batzuk gelditu bait ziren. Ikastetxetara salduz gero, baliteke interesa sortzea; bestela, oso nekeza da norberak, bere kasa, ezagutzen ez duen gai bati buruzko liburu erosi eta irakurtzea.

"Gazteen iritzietatik abiatuta
Jose Maria Sanchez Carrion,
"Txepetx"en teoria praktikarekin
lotu dugu"

Berango



Sukalde-altzariak, mahaiak eta aulkiak

Erakusketa: Legarre pabiloia z/g, Gipuzkoa etorb. Tfnoa: 79 01 92 ARRASATE

Aste gazte

"...Orain, ordea, alde-
rantziz gertatzen da: hor
ari gara zahar guztiok
gazte-plantak egiten. Ni
gazte nintzenean ez zen
gaztarorik, gaztaroa baino
zaharragoa naiz ni".

J.L. Lopez Aranguren



Ikastaroak

• Gaztetxoei zuzendu-
tako Euskal Dantza Ikasta-
roa. Adina: 10-14 urte. *Lore
Gazteak* taldearen eskutik.
Ostegunetan, 6.30etatik
7.30etara. Izenemateak:
Gazteentzako Informazio
Bulegoan.

• "Dendarientzako Ges-
tinoa" eta "Zergak" Ikastaro
teoriko praktikoak. Berga-
rako UNEDen. Iraupena:
Otsailak 18-Apirilak 14.
Ordutegia: 6.30-9.30, as-
tearte eta ostegunetan. Ma-
trikula epea zabalik. Ma-
trikula-prezioa: 20.000 PTA
(dendari.) eta 15.000 (zer-
gak).

Eski-kanpaina

• Urtarriletik Apirilera arte
asteburuko irteerak Formiga-
lera. Ikasle eta langabetuei
klaseen %50eko deskontua
egingo zaie. Gazteentzako
Informazio Bulegoan.

Gazte-Txartela

• Oraindik eskuratu ez
baduzu, ez bazaude Arrasaten
eskuratu duten milen artean,
lasai, Abendura arteko epea
duzu eta. Badakizu, argazki
bat eta N.A. ekarri. Doan da.

Lehiaketak

• San Fermin 92 Kartel-
Lehiaketa. Teknika librea.
Neurriak: 70x100. Sariak:

500.000 PTA lehena eta
100.000 PTAko 2 akzesit.
Lanak aurkezteko epea: Ur-
tarrilak 31.

• "Pasaia-Gazteria 91" V.
Komiki-Lehiaketa. 15-25
urte bitarteko gipuzkoarrei
zuzendua. Txuribeltzez.
Formatoa: 30x40 zm. Gehie-
nez, 5 orrialde. Gai eta tek-
nika libreak. Euskaraz edo
gazteleraz. Sariak: 60.000,
40.000, 20.000, 10.000 eta
plakak. Lanak aurkezteko
epea: Urtarrilak 31.

• "Angelines" Poesia-
Lehiaketa. Gai librea. Sari
bakarra: 100.000 PTA. Lanak
aurkezteko epea: Urtarrilak
31.

Bekak

• Euskal arkeologia, et-
nografia eta kondaira-mu-
seoan katalogazio, doku-
mentazio eta artxibo-anto-
laketa lanak egiteko bekak.
Eskatzaileak: Historian li-
zentziatuak. Iraupena: 5 hi-
labete (Otsailetik-Ekainera).

Dirulaguntza: 450.000 PTA.
Epea: Urtarrilak 24.

• Portugalen ikasketak
burutzeko bekak. Arloa:
portugaldar hizkuntza eta
kultura. Eskatzaileak: hi-
zkuntza menperatzen duten
lizentziatuak edo karrerako
azken ikasturteetako ikas-
leak. Dirulaguntza: hileko
74.800 eskudo eta bidai-
laguntza. Epea: Urtarrilak 24.

• Turkian ikasketak buru-
tzeko bekak. Edozein arlotan.
Eskatzaileak: turkera, fran-
tsesa edo ingelesa menpera-
tzen duten lizentziatuak. Di-
rulaguntza: hileko 600.000
lira, matrikula eta bidai-
laguntza. Epea: Urtarrilak 31.

Informazio gehiago:

Gazte Zerbitzua,
77 00 65

GOROSTI
Jatetxea

Arimazuri Plaza Tfnoa: 77 06 07 ARRASATE

**ARRASATE
PRESS**



77 05 65



J. Ramón Otamendi
HARATEGIA

Ferrerias, 20 • Tel. 79 62 28
ARRASATE

ETXEBIZITZAK

- **Santa Teresa 6, 3.** ezkerreko etxebizitza salgai dago bai atarte berebean dagoen bezero oneko ileapaindegi lokala ere. Tfnoa: 79 03 64.
- **Eskoriatzan pisua osatzeko neska baten bila gabiltza.** Tfnoa: 81 66 24.
- **Erguinen etxebizitza salgai.** Amueblatua, gas naturala, hiru logela, egongela, sukaldea, bainugela, bi terraza, eguzkitsua, bista ederrekoa eta garajea aukeran. Tfnoa: 79 93 42.
- **Logela alokatzen da.** Tfnoa: 79 07 73.
- **Eskoriatzan etxebizitza alokatuko genduke** lehenbailehen. Tfnoa: 73 04 20. Amaia.
- **Etxebizitza salgai Zigarrolan.** 4 logela, egongela-jangela, sukaldea, bainu gela, guztiz amueblatua. Dei egin 79 18 34 zenbakira.

LANA

- **Neska prest OHoko klase partikularrak emateko.** Dei egin 77 11 84 tfnora 5etatik 6.30etara eta 8.30etatik aurrera.
- **Klase partikularrak ematen dira** (fisika, kimika eta matematika). Dei egin 77 13 95 tfnora.
- **Emakume euskalduna etxeko lanak egin** edo umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 07 73.
- **Irakasle Eskolako ikasle batek OHoko neska-mutilei emango** lizkieke klase partikularrak. Tfnoa: 79 94 04. 6etatik 9ak arte. M^a Jose.
- **Magisteritza Eskolako ikasle bat, OHoko klase partikularrak emateko prest** legoke. Dei egin 79 74 03 tfnora.
- **Esperientziadun neska etxeko lanak egin** edo umeak nahiz pertsona nagusiak zainduko lituzke. Tfnoa: 79 15 35.

- **REMedo BT 1eko klase partikularrak emateko prest nago.** Dei egin 79 99 82 tfnora. Iñaki.
- **Ume bat zaindu eta etxeko lanak egiteko pertsona behar dut** Gasteizen. Interesatuak dei egin 945 - 28 67 44 edo 70 03 80 tfnoetara.
- **Etxeko lanak egiteko prest** esperientziadun emakumea. Dei egin 79 84 12 telefoora.
- **O.H.O.ko 7. mailako matematikak eta hizkuntzako klase partikularrak** behar dira Aretxabaletan. Astean hiru ordu, astlelehen, astearte eta ostegunetan 6'30etatik 7'30etara. 76 41 72 telefonoan 7'30etatik aurrera. Mari Jose.
- **Neskak gaixoak zaintzeko prest,** etxean nahiz etxean: 79 69 41
- **Etxeko lanak egin** edo umeak zaintzeko prest neska gaztea: 79 99 17

SALEROSKETAK

- **4 tokitako sofa salgai.** Estreinatua berria eta oso egoera onean, modernoa eta oso merke. Deitu lan-orduetan 79 62 80 tfnora. Rosa.
- **80 cm-ko somier eta koltxo berri-berriak salgai.** Tfnoa: 79 62 80. Rosa.
- **Autorako erremolkea salgai.** Tfnoa: 76 45 12.
- **Eskupeta paraleloa oso egoera onean salgai.** Tfnoa: 76 45 12.
- **Birkientzat kotxe-aulkia salgai, oso egoera onean dago.** Dei egin 10etatik aurrera 94-658 21 97 tfnora. 10etatik aurrera.
- **GAC First mobilette salgai.** Dei egin 79 45 74 tfnora. Aitor.
- **la berria dagoen arko-izozkailua saltzen da** 65.000 PTAtan. Neurriak 1,30 cm. luzeeran, 0,90 cm. altueran eta 0,65 cm. zabaleran. Dei egin asteartetik larunbat bitartean 94 - 682 04 83 tfnora.
- **Talbot Horizon autoa salgai.** SS-N matrikuladuna. Motorea errekifikatua eta errebisioa eta aseguru abuztuan eginak ditu;

- beraz, aukera ezin hobea. Interesatuak dei egin 94 - 682 04 83 tfnora. asteartetik larunbat bitartean goizeko 9etatik 12.30etara.
- **Orbea markako lasterketa-bizikleta berri berria salgai.** 25.000 PTA Tfnoa: 79 40 44.
- **Txapa kalefaktorea salgai,** egoera onean, baita gas naturalarendako ur berogailua: 79 59 72
- **Peugeot motozikleta zahar bat** dut sotanoan, eraman nahi baldin baduzu oparitu egingo dizut: 79 50 53. Jon

DENETARIK

- **Katu-oin bat galdu dut Aretxabaletatik Arrasaterantz.** Tfnoa: 79 25 15.
- **Eskumuturreko erlojua galdu dut.** Nire lehenengo jaunhartzekoa da. Dei egin 79 29 39 tfnora. arratsaldeko 7.30etatik aurrera.
- **Bilbora eramateko prest dagoenari:** mesedez, deitu berriro, zure telefono-zenbakia gaizki daukat eta. Tfnoa: 79 22 63.
- **Portugaleteko Aritz Gonzalezi bere urte betetzean zorionak** Arrasateko senide guztien partez.
- **Larunbatean San Frantzisko inguruan,** harribitxi landuz osatutako urrezko itxiduradun bi bueltako koilarra galdu nuen. Mesedez ekarri Arrasate Press-era.
- **Abenduaren 8an, igandez arratsaldeko 4.30ak inguruan,** giltza batzuk galdu ziren Urbarri Etorbidetik Zarugalde kalera bidean. LKAren anagramadun diru-zorrobaten barruan zeuden, diru apurren batekin. Aurkitu dituenak utzi dituzala mesedez Udaltzaingoa. Eskerrik asko.
- **Gabon zaharrean urrezko eskuturrekoa galdu zatzaidan.** Norbaitek aurkitu balu eskertuko nioke 79 53 53 tfnora. deitzea.
- **Arrasateetik Leioara.** Egunero autoz Unibertsitateko joan-etorria egin behar dut. Nahi baduzu, gastuak erdibana egingo ditugu. Dei egin eguerdiz 79 50 20 tfnora. Imanol.



**ARRASATEN
HILDAKOAK**

Josefa Otamendi Argaña,
urtarrilaren 7an. 91 urte.

Manuel Izco Rodrigo,
urtarrilaren 8an. 71 urte.

**ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK
DEBALDE DIRA. TESTUA IDATZI ETA
BIDALI GURE BULEGOETARA**

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE


Tfnoa: 77 08 15

Zer nahiago?

Asier Bergaretxe

Revolution rock dendakoa

- **Diskoa ala kasettea?** Ez bata eta ez bestea, konpaktoa.
- **Bideoa etxean ala zinemara joatea?** Zinemara, betidanik gustatu izan zait eta gainera ez daukat bideorik.
- **Kotxean irratia ala kasettea?** Konpaktoa.
- **Erosketak beherapenetan ala bestela?** Bestela, behar dudanean erosten dudalako.
- **Bizarra kentzeko makina ala aitzurra?** Makina, askoz erosoagoa da.
- **Konpaktoa ala diska?** Dударik ez, konpaktoa.
- **Pintxoak beroak ala hotzak?** Beroak.
- **Udazkena ala udaberria?** Negua, beti gustatu zaizkit egun grisak eta ilunak.
- **Trikitixa ala bertsoak?** Musika aldetik ez zait bat bera ere gustatzen.
- **Elurretan eskiatu ala trineoan ibili?** Eskiatu, oso forofoa naiz.
- **Irakurri ala musika entzun?** Musika entzun baina biak batera ere egiten ditut.
- **Euskadi Gaztea ala Euskaldi Irratia?** Lehen gehiago entzuten nuen irratia, baina *Radio 3* entzuten nuen. Orain noizbehinka *Egin Irratia* entzuten dut.
- **Alkondara ala rock-kamiseta?** Alkondara.
- **Dendari ala musiko?** Gustatatu gehiago musiko, baina negozio honetan gaudenok, musiko frustratuak gara.
- **Erreala ala Bilbo?** Erreala.
- **Abestu ala dantza egin?** Abestu.
- **Lotarako pijamakin ala pijama barik?** Pijama barik.
- **Lotoa ala kinielak?** Bat ere ez.
- **Heavy ala punky?** Punky, nik entzun nuen lehenengo musika da eta.
- **San Juanak ala Santamasak?** Herriko jaietatik alde egiten dut, ez naiz oso jai zalea.
- **Gutunak idatzi ala telefonoz hitzegun?** Biak...
- **Militar botak ala zapatak?** Zapatilak.



Bertsotan

Beherapenak

1
Urte berria heldu da eta berarekin Urtarrila normala denez izaten dugu diruz urri gauden hila denda denetan aurki daitezke makina bat "marabila" ta beherapenak izaten dira erakarpen maratila mundu guztia "buitre" bezala gauza merkenen bila. (Bis)

2
Kili-kolo ta Lukon dagoela "cincuenta por cientokoa" zaharra eta itxuragabe dago nire txalekoa nik bitartean diruz beterik dadukadala kolkoa dirutza hori inbertitzeko hementxe daukat gakoa denda batera joanez gastatu gastatu beharrekoa. (Bis)

3
Hilabetan oso merke ta garesti urte osoan denda batera sartu orduko hamar gauz daukat besoan hamabi mila pezeta gabe etxera bueltatzekoan esanez nabil: gastatu ditut oso modu erosoan ta bitartean hutsune ona nabari dut poltsikoan. (Bis)

MAIDER OSA

Beherapenetan gaude

LOBAMENDI KIROLAK

Txamarrak, lumatxak, txandalak
Markarik onenak preziorik onenetan

Maiatzaren 1a plaza ARRASATE Tfnoa: 79 97 24



ARGI PLASTIC. C. B.

PVC eta aluminiozko
leihogintza

Berria Arrasaten! Diseinu berriak!

Axeri, 3 ARRASATE
Tfnoak: 77 02 40 / 77 11 30



Argazkia,
1947ko San
Jose egunean
atera zuten
Larrea baserri
botaberriaren
aurrean.

hasita Kontxita Etxeberria, Isabel

Iriondo, Karmen Arrieta eta Felisa Aranburu dira. 10etan Meza Nagusia entzun eta eguraldi ederrarekin, "Buelta a la O" deitzen zitzaiena egin zuten ohi bezala: Parrokiatik irten eta Arrasate Pasealekutik zehar Udala Plazatik Zarugaldera eta ostera erdikaldera. Izen berarekin bazen beste ibilaldi bat ere, beste bertsio bat:

Portaloitik irten eta Maalatik barrena, orain etxe txikiak dauden lekutik Zaldibartik zehar erdikaldera joatea.

Badakigu San Jose egun hartan eguraldi ederra egiten zuela, baina ez dugu hurrengo egunekoaren berririk, izan ere Udalaitzek txapelik duen ala ez begiratuta jakiten da hori, eta argazkian ez da hori ikusten.

URONDO
elektrizitatea




Nafarroa etorbidea, 11 Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE

- * Elektrogaiak
- * Instalazioak
- * Automatismok
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak

Erdiko kale. 79 19 37



Ferrerias. 79 87 62



ATBko ordezkariak Beaufontaineako mahaingurua hitz egin zuen.

Asier Aranguren

“ATB duina da mundu mailan”

Urtarrilaren 6, 7, 8 eta 9an “Munduko Telebista Lokalen Olinpiada” izan da Frantziako Beaufountain herrian, Frantziako Federazioak UNESCOren laguntzaz antolatuta. Arrasate Telebista izan da Euskal Herriko ordezkari bakarra eta baita estatuko txostenemaile bakarra ere. Asier Aranguren kontatu dizkigu han jasotako inpresioak.

-Zer telebista mota bildu zarete olinpiada horietan?

-Alde batetik mundu guztiko jendea izan da, eta horrek dakarren aniztasunarekin. Adibide bat jartzearen, guk parte hartu genuen atalean australiarrak, EE-BBko satellite telebista alternatiboa, Britainia Haundiko beltzen telebista eta brasilgo kale telebista izan ziren partaide gurekin batera.

-Jatorriz bakarrik ez, beraz, ezberdinak...

-Ez, jarrera edo sensibilitate ezberdineko jendeak egindako telebistak ezagutu ahal izan ditugu. Lau sensibilitate ezberdinek eragindako jendea bildu gara: Alde batetik bideo sormenean ari direnak, gero “public access” deituriko kanal irekiak, ikusentzutekoak borroka polikoaren parte bezala erabiltzen dituztenak eta telebista lokal estandarra azkenik.

-Aniztasun horretatik zer atera duzue baliagarrik?

-Gu ATBren esperientzia kontatzera joan ginen, hizkuntza bakartzat euskara eta informazio lokala ditugularik

gure bi ardatzak. Hizkuntza minorizatua erabiltzen duten telebista gutxi ikusi dugu eta hizkuntzaren ganako kezkarik ere ia batere ez dugu somatu. Alde horretatik, gure antzeko jarrera duten batzuegandik zerbait ikas dezakegula ikusi dugu, kataluniar, holandar, belgiarren-gandik batez ere. ATB denen artean txukunen dagoela esan genezake inongo lotsa barik, eta lujo handia dela Arrasatek daukana; zalan-tzarik gabe, daukagun est-rukturarekin ematen dugun kalitate eta kopuruari begira munduko onenetakoak gabela esan behar. Badugu zer ikasirik, baina beste batzuk ere

bai gugandik.

-ATBren produkzio-erakutsi zenuten? Zer harrera edo kritika izan zuen?

-Hitzaldian zehar promozio bideo bat besterik ez genuen eman. Sariketa bat ere bazegoen, baina ez genuen parte hartu. Hurrengoan seguru. ATBren sensibilitate bereko jendearen artean harrera ona izan genuen, nahiz eta informazio lokalaren kezkarik ez duten gainerako telebistentzat gurea oso konbentzionala izan.

-Etorriz zehar zer?

-Olinpiada bi urtetik behin egingo da, eta ordurako Euskadiko ordezkari eta estatu mailako koordinatzaile lana hartu ditugu ATBn. Horrez gain, geurearen antzeko diren telebistekin harremanetan jarri gara bata bestea aberastu eta elkarlanean.

“Badugu zer ikasirik, baina beste batzuk ere bai gugandik!”



Telebegi

Telebista lokalen olinpiadatik bueltan gogoeta batzuk:

- Mundu zabalean fenomeno izugarria bilakatu da telebista lokalea azken urteotan. Parajerik exotikoenetatik ere agertu dira ordezkariak Albertvilleko ingurura.

- Oso helburu ezberdinetarako erabiltzen da telebista lokala munduan zehar: borroka politikorako, sormen artistikorako, giza-eraginerako eta abar. Aniztasun horretan datza fenomenoaren aberastasuna eta aldi berean egituratzeko zailtasuna.

- Informazio lokala lantzea helburu dutenen artean, ATBk erakutsi duen maila ona da, produktua duina. Eta dauzkagun bitartekoen arabera, harrigarria da ATBren emaitza. Kontu hauetan harrokeria txarra bada, urrikeria ez da hobe.

Uhin handi batean gaude, beraz, eta ondo kokatuta. Hurrengo hilabetetan ditugun errorrekei aurre egiteko, ez da konfidantza hori indar makala!

MIKEL IRIZAR

TB lokalak

Asteartea, 9.15

Aste honetako *Erreportaiak* saioan, Telebista Lokalei buruzko lan zabal bat izango duzue aukeran. Horrez gain, Leniz Bertsolari Eskolari buruz ere jardungo dugu. Gogoratu, beraz. Asteartean, 9.15etan, ATBekin daukazue zita!

Mondra-Gol

Aste honetan:
Mondra-Bermio

Igandean
9.15etan

Mondra-Sport

Asteburuko kirolen
errepañu zabala

Asteartean
9.15etan

Txatxaran

Arrasateko neska-
mutikoekin jardunean

Asteazkenean
9.15etan

Programazioa

19

IGANDEA

9.15etan, *Mondragol*. Mondra-Bermio partidaren ordu erdiko laburpena. Jose Luis Ezkurra eta Jon Andueza.

21

ASTEARTEA

8, 8.30 eta 9etan, *Berriak*. Egunean zehar jasotako berriak.
9.15. *Erreportaiak*. Herri telebistei buruzko lan bat izango duzue ikusgai; eta Leniz bertso eskolari buruz jardungo dugu.

23

OSTEGUNA

8, 8.30 eta 9etan, *Berriak*. Albistegia.

20

ASTELEHENA

8, 8.30 eta 9etan, *Berriak*. ATBren albiste-emanaldia.
9.15etan, *Mondra Sport*. Arrasateko Kirol-munduren errepañoa, Gerardo Mendizabal eta Mikel Uribealgorekin.

22

ASTEAZKENA


8, 8.30 eta 9etan, *Berriak*. ATBren albistegia.
9.15. *Txatxaran*. Maider Eguesek zuzendutako elkarrizketa saioa. Aste honetako gonbidatua: Arrasateko neska-mutiko taldea.

24

OSTIRALA

8, 8.30 eta 9etan, *Berriak*. Albistegia.
9.15. *Ostiral Musikala*:: Marta Izagirrek zuzenduta, Arrasate Musikali eskainitako saioa.

KANPAZAR: GAILURRERAINO IGOTZEKO IBILGAILUAK.



KANPAZAR

ZERBITZU OFIZIALA

**Kanpazar tailerretan aurkituko duzu orain mendiko zure
ibilgailua: Suzuki Santana.**

**Aukera berria dugu, "Lurroroko ibilgailuen aukera".
Bisita gaitzazu konpromezu barik, eta gozatu etorkizuneko zure
mendiko ibilgailua.**

**Tailerrak: Bizkaia Etorbidea, z/g. Tfnoa: 79 41 98
ARRASATE**